



# AURRERAPEN DOKUMENTUAREN GARAPENERAKO ESTRATEGIA 2008 – 2016 ESTRATEGIA DE DESARROLLO DEL DOCUMENTO DE PROGRESO 2008 – 2016

## AURKIBIDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA	6
<b>A ZATIA. 2008 – 2016 EPEAREN ANALISIA</b>	<b>11</b>
<b>1 SARRERA</b>	<b>11</b>
1.1. 2008-2016 AURRERAPEN DOKUMENTUA GAURKOTZEKO ETA GARATZEKO PREMIAREN JUSTIFIKAZIOA	11
1.2. ALDEZ AURREKO DEFINIZIOAK ETA KONTZEPTUAK	12
1.2.1. PLANAREN HELBURUA, LURRALDE ESPARRUA ETA EPEMUGA	12
1.2.2. HH(-) HONDAKINEN SAILKAPENA	12
1.2.3. 2008-2016 AD EGUNERATZEA ETA GARATZEA BULTZATU DUTEN HONDAKINAK	13
1.2.4. LEHEN MAILAKO HONDAKINAK, BIGARREN MAILAKO HONDAKINAK ETA AZKEN HONDAKINAK	13
1.2.5. HIRI HONDAKINEN KUDEAKETAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEAK	14
1.2.6. 2008+4 ADGEAN GARATUTAKO PLANIFIKAZIOARI BURUZKO ARGIBIDEAK	16
<b>2 GARAPEN ESTRATEGIKO ETA JURIDIKO BERRIAK 2008-2012</b>	<b>17</b>
<b>EPEALDIAN. ESTRATEGIA INDARREAN DAGOEN LEGERIARA MOLDATZEA</b>	
2.1. ALDAKETA ESTRATEGIKOAK ETA JURIDIKOAK	17
2.1.1 HONDAKINEN KUDEAKETARI LOTUAK DAUDEN BATASUNEKO ETA ESTATUKO ESTRATEGIA BERRIAK	17
<b>3 HIRI HONDAKINEN PARAMETRO NAGUSIEN BILAKAERA 2008-2012</b>	<b>23</b>
<b>EPEAN ZEHAR</b>	
3.1. BIZTANLERIAREN BILAKAERA	23
3.2. - HH (-)en SORRERAREN BILAKAERA	25

4	HONDAKINEN TRATAMENDUA. EGUNGO EGOERA ETA AZPIEGITURA ETA ZABORTEGIEN AHALMENA	33
4.1	MOK TRATATZEKO PLANTAK ETA EGUNGO AHALMENA	33
4.2	ONTZI ARINAK TRATATZEKO PLANTAK ETA EGUNGO AHALMENA	34
4.3	AZPIEGITURAKETA GAINERAKO ZATIKIA TRATAMENDURIK GABE BOTATZEKO EGUNGO AHALMENA	36
5	SORRERA PROGNOZIA GAURKOTZEA ETA GHHKPOren HELBURUAK EGOKITZEA	39
5.1	HIRI HONDAKINEN 2008 - 2016ko SORRERA PROGNOZIA GAURKOTZEKO PARAMETROAK	39
5.2	HAUTATUTAKO ESZENATOKIA. SORRERA PROGNOZIA ETA GAIKAKO BILKETA	40
5.2.1	HH (-)en SORRERA PROGNOZIA 2008 - 2020	40
5.2.2	HH (-)en GAIKAKO BILKETAREN PROGNOZIA 2008 - 2020	42

<b>B ZATIA. 2008 – 2016 EPEAREN ANALISIA</b>	<b>45</b>
<b>6 2008+4 ADGEaren HELBURUAK</b>	<b>45</b>
6.1 PREBENTZIO HELBURUAK 2012 - 2016	45
6.2 GAIKAKO BILKETAREN HELBURUAK 2012 – 2016rako	45
6.3 2012 - 2016rako TRATAERA HELBURUAK	45
<b>7 PREBENTZIOA</b>	<b>46</b>
7.1 ETXEKO KONPOSTATZEA ETA KONPOSTATZE KOMUNITARIOA	46
7.2 ELIKAGAI XAHUKETAREN PREBENTZIOA. GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUA (GEB)	47
7.3 PREBENTZIO EKINTZETARAKO DIRULAGUNTZA LERROA	47
7.4 BERRERABILPENA SUSTATZEA	47
7.5 HEZKUNTZA ZENTROEKIKO LANKIDETZA	48
7.6 ZERGA POLITIKA	48
<b>8 GAIKAKO BILKETA</b>	<b>49</b>
8.1 GAIKAKO BILKETAREN IRISMENA ETA MUGAK	49
8.2 GAIKAKO BILKETAREN GIPUZKOAKO EREDUA	50
<b>9 TRATAMENDUA. PROPOSATUTAKO EREDUA ETA AZPIEGITURAK</b>	<b>51</b>
9.1 MOKa TRATATZEKO PLANTAK	51
9.2 PLANTAS DE TRATAMIENTO DE ENVASES LIGEROS	54
9.3 GAINERAKO ZATIKIA TRATATZEKO AZPIEGITURETARAKO PROPOSAMENA	55
9.3.1 HONDAKIN EGONKORTUEN FARDELEN DEPOSITATZE KONTROLATUA, ESPAZIO DEGRADATUAK LEHENERATU ETA BERRESKURATZEKO	58
9.3.2 GAINERAKO ZATIKIA AZTERTZEKO ETA BERRESKURATZEKO ZENTROA	59
9.4 MASA BALANTZEA	60

9.4.1	MASA BALANTZEA 2016rako HAUTATUTAKO EGOERARAKO	60
9.4.2	MASA BALANTZEA 2020rako HAUTATUTAKO EGOERARAKO	62
10	INBERTSIOAK	64
11	PLANGINTZA	66
12	HAUTATUTAKO ESTRATEGIAREN JUSTIFIKAZIOA	68
12.1	INGURUMEN ARLOKO JUSTIFIKAZIOA	68
12.1.1	HONDAKIN SORRERA MURRIZTEA	68
12.1.2	GAIKAKO BILKETA HANDITU ETA BERRESKURATZE MATERIALA MAXIMIZATZEA	68
12.1.3	BILDUTAKO HIRI HONDAKINEN % 100 TRATATZEA	68
12.1.4	ZABORTEGIAK IXTEA	69
12.1.5	EGONKORTUTAKO MATERIALA ERABILTZEA ANDEATUTAKO GUNEAK BERRESKURATZEKO	69
12.1.6	MOKaren TRATAERA DESZENTRALIZATUA	70
12.1.7	HONDAKINEN GARRAIOARI LOTURIKO EMISIOEN, TRAFIKOEN ETA KOSTUEN MURRIZTAPENA	71
12.2	JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA	71
12.2.1	INBERTSIOEN OPTIMIZAZIOA	71
12.2.2	INBERTSIOA DESZENTRALIZATZEA / TOKIKO EKONOMIA BIZKORTZEA	73
12.2.3	TRATAMENDU-AZPIEGITUREN MALGUTASUNA / USTIAPEN-KOSTUEN MALGUTASUNA	74
12.3	GIZARTE JUSTIFIKAZIOA	75
12.3.1	ZUZENEKO LANPOSTUEN GEHIKUNTZA / LANPOSTUAK DESZENTRALIZATZEA	75
12.3.2	AZKEN PRODUKTUA SORRERA-GUNETIK HURBIL TRATATZEA ETA BALIATZEA /HONDAKINA BALIABIDE MODUAN IKUSTEA	76
13	ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	77

## LABURPEN EXEKUTIBOA

2002an onartutako Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren (GHHKPO) 2008-2016 –ADGE 2008+4– Aurrerapen Dokumentua Garatzeko Estrategiaren helburua da aipatutako dokumentu horretan hiri hondakinak kudeatzeko proposatzen den eredia egokitzea, bai hiri hondakinak kudeatzeko datu berrietara, bai gaikako bilketan aurreikusi den gorakadara, eta bai hondakin gaietan indarrean dauden legeria eta araudietara.

Hondakinen sorreran gertatzen ari diren aldaketek eta gaikako bilketaren gorako joerak, Aurrerapen Dokumentua egokitu beharra dakarte; izan ere, aldeztatik aurreikusitako eszenatokiak Gipuzkoako lurraldearen gaur egungo egoerara egokitu behar baitira.


Hona, segidan, 2008-2016 Aurrerapen Dokumentua garatzera eraman gaituzten oinarritzko alderdiak:

- **BIZTANLERIAREN HAZKUNDEA.** Aurrerapen Dokumentuan egindako aurreikuspenekin alderatuta, biztanleriak gorako joera erakusten du. Segidako taulan ikus daitekeenez, Aurrerapen Dokumentuan aurreikusitako biztanle kopurua, 7.847 gehiago izan da 2011ko urtean. Eta faktore horrek, 2012-2016 epealdian gertatuko den hiri hondakinen sorrera-aurreikuspenean eragiten du.

1. taula. Aurrerapen Dokumentuan aurreikusitako biztanleria-prognosiaren eta errealitatearen arteko alderaketa. Iturria: Aurrerapen Dokumentua eta mankomunitateen datuak

URTEA	Aurrerapen Dokumentuaren prognosiko biztanleria (bizt.)	MANKOMUNITATEETAKO BIZTANLERIA (bizt.)
2008	713.315	718.524
2009	715.301	723.087
2010	717.292	724.785
2011	719.288	727.135

1 irud. Aurrerapen Dokumentuan aurreikusitako biztanleria-prognosiaren eta errealitatearen arteko alderaketa. Iturria: Aurrerapen Dokumentua eta mankomunitateen datuak




- **HONDAKINEN SORRERA.** Hondakinen sorrera-aurreikuspenek ez dute jarraitu 2008-2016 Aurrerapen Dokumentuan aurreikusitako joera; hain zuzen ere, beherakada nabarmena izan dute, hainbat arrazoi direla tarteko: hondakinak prebenitzeko politikak, autokonpostaketa nabarmen gehituz; krisialdi ekonomikoa, eta horrek hondakinen sorreran duen eragina... Ildo horretan, aurreikusitako hondakin-sorrera % 12 murriztu da gaur egun, eta horrek, hondakinen tratamenduari eman beharreko neurriak berriro planteatu beharra dakar berarekin. Eta horretarako, gaur egungo errealitateari egokitutako sorrera-eredu berriak hartu behar dira abiapuntutzat.

**2. taula. Aurrerapen Dokumentuan aurreikusitako hondakin-sorreraren bilakaera-prognosiaren eta errealitatearen arteko alderaketa. Iturria: Aurrerapen Dokumentua eta mankomunitateen datuak**

URTEA	Aurrerapen Dokumentuko SORRERA	MANKOMUNITATEETAKO SORRERA (t/urte)
	PROGNOSIA (t/urte)	
2008	371.256,04	350.840,70
2009	374.907,05	341.426,65
2010	378.631,13	338.801,94
2011	381.472,86	334.417,78

\* Ez da aintzat hartu kudeaketa pribatuko IMEHAen sorrera.

**2. irud. Aurrerapen Dokumentuan aurreikusitako hondakin-sorreraren bilakaera-prognosiaren eta errealitatearen arteko alderaketa. Iturria: Aurrerapen Dokumentua eta mankomunitateen datuak**



- **GAIKAKO BILKETA.** Gaikako bilketaren planteamenduak izan duen bilakaerak, bilketako zatikietan eta bilketa bera egiteko eredu eta sistemetan izan den bilakaerak, Aurrerapen Dokumentuan aurreikusitako bilketa-helburuak baino xede zorrotzagoak ezartzera behartzen gaituzte.

Aurrerapen Dokumentuan adierazitakoaren arabera, *GHHKPO-Aurrerapen Dokumentua binomioko dokumentuetan zehar hondakin hierarkiaren goi-mailerako -prebentzioa, berrerabiltzea, birziklatzea eta konpostatzea- proposatzen diren kudeaketa-helburuak, gutxieneko helburuak dira; beraz, ahal izanez gero behintzat, gainditu egin behar dira. Hau da, udalen eta mankomunitateen iritziz, beraiei dagokienez, planifikazioko dokumentu horietan aipatutako goi-mailako helburu horiek lortzeko gai badira, hondakinak biltzeko eta kudeatzeko sistema eraginkorragoak erabilita, gaitasun hori gauzatu egin beharko lukete.*

Aurrerapen Dokumentuak planteatzen zuen, lehen fase batean, materia organiko konpostagarria bere jatorrian bereiztea eta gaika biltzea, halakotzat harturik maneiatu gabeko materia organiko ustelkorra. Era berean, sistema hori maneiatutako hondakineta zabaltzeko aukera aurreikusten zuen, betiere, lortutako zifren argitan eta maneiatutako nahiz maneiatu gabeko hondakinekin beste lurraldeetan izandako esperientzietan lortutako emaitzak aztertu ondoren. Hasiara batean maneiatu gabeko hondakin organikoen gaikako bilketa ezarri zuten udalerrri eta sektore guztietan, maneiatutako hondakin organikoak ere materia organiko konpostagarrien gaikako bilketan sartzen dira gaur egun. Ildo honetan, zabalpenak eta ezarpen berriak, maneiatutako eta maneiatu gabeko janari-hondakinak sorburuan bereiztea eta gaika biltzea aurreikusita planteatu ziren; horrek ere, tratamendu-premiak birplanteatu beharra dakar.

Bestetik, 2008-2016 Aurrerapen Dokumentua onartu zen momentuan, *adostasun bat zegoen autokonpostaketa, inausketa eta lorazaintzako hondakinen gaikako bilketa, eta sortzaile handiek eragindako materia organiko konpostagarriaren atez ateko bilketa bereizia ezartzearen inguruan*. Etxeetako materia organiko konpostagarria bereizita biltzeari dagokionez, aipatutako dokumentuaren helburua zen *espaloiko edukiontzietan gaika biltzea, 5. sistema pertsonalizatua erabiliz; hau da, sistemara atxikitako bizilagunek bakarrik erabil zitzaketen giltzez itxitako edukiontziak erabilia*.

Aurrerapen Dokumentuaren helburua zen, 2016rako % 56,9 birziklatzea eta konpostatzea, kudeaketa pribatuko IMEHAK ere horretan sartuta. Horrek esan nahi du, kudeaketa publikoko hiri hondakinen % 30 gaika biltzea zela benetako helburua. Gaikako bilketak, 2011. urtean, gainditu egin du Aurrerapen Dokumentuan 2016rako ezarritako helburua, % 32ra iritsi baita. Horrek erakusten du proposatutako eredia optimizatu egin behar dela, eta orduan egindako aurreikuspenak Gipuzkoako lurraldeak gaur egun bizi duen errealitatera moldatu behar direla; hau da, 2016rako, gaikako bilketa-helburu zorrotzagoak ezarri behar direla.

Azken hiru urte hauetan, etxeko hiri hondakinak beste era batera biltzeko sistema ezarri dute Gipuzkoako hainbat udalerritan, hondakinen sortzaileari ere erantzukizun maila handia emanda –atez ateko sistema, edukiontziei identifikazio pertsonalizatua emanda–. Eta sistema horrek, hondakinen %80a gaika biltzea ahalbidetu du, parte-hartzea borondatezkoa izan ez den kasuetan. Udalerrri askok, esperientzia horiekiko interesa erakutsi dute, eta gaikako bilketan emaitza hobekak bermatuko dituzten eta gainerako zati kopurua minimizatuko duten sistemak ezartzearen alde azaldu dira.

Udalerrriak eta mankomunitateak gaikako bilketan helburu hoberenak lortzera bultzatuko dituen bilketa sistema bat planteatu beharra dago, sortzailea bera sortzen duen hondakin kopuruaz ardurarazita, eta hondakinak sorburuan bertan behar bezala prestatuta. Berez, lortu nahi dena, hondakinak sorburuan bereiztea baino gehiago, hondakin-fluxuak jatorrian nahas daitezzen ekiditea da, gero birziklatu nahi izanez gero, hondakin horiek bereizten ari beharrik ez izatea.

Jokabide egokiak eta lortutako emaitzak sustatu behar dira, “kutsadura eragiten duenak ordaindu egin behar du” leinari eutsiz HH(-)en kudeaketa kate osoan; hau da, prebentzioa eta gaikako bilketaren emaitzak maximizatzea saritu egin behar da, eta hondakinak bereizi gabe sortzea zigortu egin behar da, masako hondakina sortzea bezalaxe.

Aurreikuspenetan izan diren aldaketa horiek guztiak islatu egin behar dira proposatutako trataera eredian. Eta eredu horrek, honakoak izan behar ditu oinarri:

- Prebentzioa, urtean guztira sortzen den hondakinaren % 1 behintzat prebenitzea gutxieneko helburutzat hartuta.
- Birziklatzea –helburua izan behar du 2016an kudeaketa publikoko hondakinen % 60 gaika biltzea, eta 2020an, berriz, % 75a–, betiere zatiki birziklagarrien kalitateko balorizazioa bermatuko den moduan.
- Hondakinen % 100 tratatzea, lor litekeen gehieneko berreskuratze materiala ziurtatuta eta “zero isurketa” bermatuta, horrelakotzat hartuta lehen mailako hondakinak, hau da, hondakinak sortzen diren moduan isurtzea, alde aurretik tratatu gabe. Eredu hori martxan jartzen denean, Gipuzkoan bukatu egingo da betidaniko zabortegien garaia eta zabortegi horiek eragiten dituzten inpaktuen garaia.
- Ikerkuntza eta aurrerapen teknologikoa. Eredu honetan, ikerkuntza eta garapen ildo berria sartuta, hondakinen prebentzioan eta balorizazio materialean helmuga berriak irekiko diren moduan.
- Sentsibilizazioa eta heziketa. Eredu koherentea izan behar du, hondakinak behar bezala bereiztearen balioaz sentsibilizatzen lagunduko duena, instalazioak interpretatzeko eredu pedagogiko eta hezitzailea erabilia, hiri hondakinen kudeaketa orokorraren esparruan.



Doitu beharreko puntu nagusienetako bat, hondakinen sorrera prebenitzea eta zatikiz zatiki biltzea da; izan ere, sorrera-aurreikuspenekin alderatuta, % 12ko aldea antzeman baitugu. Horri erantsi behar zaio jada 2011n lortu direla 2016rako aurreikusita zeuden kudeaketa publikoko hondakinen gaikako bilketa-helburuak; eta horrek ere aldatu egiten ditu fluxu-aurreikuspenak.

Horrek, 2008-2016 Aurrerapen Dokumentuko eszenatoki desberdinetan proposatutako tratamendu-azpiegiturak birplanteatu beharra eskatzen du; izan ere, eszenatoki horietako edozein garatzeak instalazioei –batez ere gainerako zatikia tratatzeko eta balorizatzeko instalazioei– gain-neurriak ematea ekarriko luke berarekin, eta horrek, trataera gastuak garestitu egingo lituzke, azpiegituren gaitasuna edota beste erregioetatik hiri hondakinak inportatzeko ahalmena ez bailitzateke behar beste erabiliko.

**3. taula. Kudeaketa publikoko lehen mailako hiri hondakinen tratamenduari buruz GHHKPOean eta ADan egindako aurreikuspenen aldaketa, eta Aurrerapen Dokumentua Garatzeko Aurreikuspena.**  
Iturria.Geuk egina

Onartutako GHHKPO	2008-2016 Aurrerapen Dokumentua						AD		2020rako PROGNOSIA	
	Oinarritzko eszenatokia		Oinarritzko eszenatokia, Aurre. emanda		AD		GARAPENA 2012-2016		2020rako PROGNOSIA	
	t/urte	%	t/urte	%	t/urte	%	t/urte	%	t/urte	%
<b>BIRZIKLATZEA</b>	200.919	% 40,7	116.687	% 30,4	116.687	% 30,4	123.812	% 37,8	160.891,13	% 50,0
<b>KONPOSTATZEA /DIGESTIO</b>										
<b>ANAEROBIKOA</b>	21.780	% 4,4	53.429	% 13,9	53.429	% 13,9	61.397	% 18,7	83.663,39	% 26,0
<b>ABM</b>	-		-		167.811	% 43,8	142.459	% 43,5	77.227,74	% 24,0
<b>BALORIZAZIO</b>										
<b>ENERGETIKOA</b>	271.181	% 54,9	213.357	% 55,6	45.546	% 11,9		% 0,0		% 0,0
<b>ISURKETA</b>	-		-		-		-			% 0,0
<b>GUZTIRA</b>	493.880	% 100	383.473	% 100	383.473	% 100	327.668	% 100	321.782,25	% 100,0

Aurreko taula horretan ageri dira kudeaketa publikoko hiri hondakinen –kudeaketa publikoko EH eta IMEHAK– tratamendu-premiei buruz GHHKPOean eta 2008-2016 Aurrerapen Dokumentuan egindako aurreikuspenen eta dokumentu honetan egindako aurreikuspenen artean dauden aldaketak. Ikus daiteke nola aurreko dokumentu haietan, gainerako zatikia tratatzeko premia neurritz kanpo handitzen zen, eta zatiki birziklagarriak nola gutxiesten ziren.

Gainera, horri erantsi behar zaio, masan biltzen den hondakin kopurua 2020. urtera arte pixkaka-pixkaka murrizten joatea aurrekusi dela. Aurreikuspenen arabera, urte horretan 103.000 tonatik gora ez da jasoko masan, eta gaikako bilketa % 75ekoa izateko helburua bete egingo da Gipuzkoako lurraldean.

Faktore horiek guztiek, gaikako bilketan eta balorizazio materialean aurrera egiteko aukera emango duen tratamendu-sistema malgu bat planteatu beharra erakusten dute; izan ere, ez da ahaztu behar gainerako zati kopuruak minimizatze bidea daramala eta, edozein kasutan ere, material birziklagarriak ahalik eta gehien berreskuratuko diren moduan tratatu behar dela gainerako zati hori, gero izan ditzakeen erabilerak eta aplikazioak ahalbidetuko diren moduan.

2008-2016 Aurrerapen Dokumentuan planteatzen da, materia organiko konpostagarria era deszentralizatuan kudeatzea, urtean 10.000 tona hondakin baino gutxiago tratatzeko ahalmena duten konpostatze plantetan, eta San

Marko inguruan bildutako materia organiko konpostagarriaren balorizazio energetikorako tratamendua ematea. Era berean, planteatzen da, ontzi arinak bereizteko eta sailkatzeko ahalmena areagotzea eta gainerako zatikiari trataera erdi-deszentralizatua ematea, material birziklagarriak berreskuratuz eta zatiki biodegradagarria biologikoki egonkortuko den moduan. Gainera, bermatuko du trataera plantetako errefusetan material biodegradagarriaren edukia < % 15 izatea, gero eremu degradatuak berreskuratuzeko erabili ahal izango den moduan.

Lehen mailako eta bigarren mailako hondakinak kontuan hartuta, hauek dira GHHKPOan eta ADan egindako aurreikuspenen arabera, 2016. urtean trataera desberdinetara bideratuko diren kopuruak:

4. taula. Lehen mailako eta bigarren mailako HH (-) tratamendu-aldaketak GHHKPOan, ADan eta ADGEan.2016 (t/urte) Iturria:Geuk egina

	2008-2016 AD			ADGEko AURREIKUSPENA	2020rako PROGNOSIA
	Onartutako GHHKPO	Oinarrizko eszenatokia	Oinarrizko eszenatokia, Aurre. emanda		
<b>BIRZIKLATZEA</b>	278.233	294.156	288.011	134.313	166.436
<b>KONPOSTATZEA</b>	21.780	53.429	53.429	48.874	65.430
<b>MOK, BALORIZAZIO</b>					
<b>ENERGETIKOA</b>	-	-	-	25.045	36.466
<b>AMB</b>	-	-	167.811	142.459	77.228
<b>BALORIZAZIO</b>					
<b>ENERGETIKOA</b>					
<b>(ERRAUSKETA)</b>	309.256	261.637	213.565	0	0
<b>EREMU DEGRADATUAK</b>					
<b>BERRESKURATZEA</b>	-	-	-	120.522	78.879
<b>ISURKETA</b>	22.806	17.504	14.660	0	0
<b>GUZTIRA</b>	632.075	626.726	737.476	471.213	424.438

\* Aintzat hartu dira HUAko lohiak eta kudeaketa pribatuko IMEHAK.

Trataera premiei dagokien dimentsioa emateko, kudeaketa publikoko HH (-) sorrerari eta gaikako bilketari buruzko aurreikuspenak zehaztu behar dira; izan ere, Hondakin Uren Araztegiako lohiak eta kudeaketa pribatuko IMEHAK ere, GHHKPOan eta 2008-2016 ADan aintzat hartutako gainerako hondakinetan sartu dira, eta horrek itxuraldatu egiten ditu bai gaikako bilketaren emaitzak eta bai hondakinen tratamendurako azpiegitura publikoen premiak ere.

# A ZATIA. 2008 – 2016 EPEAREN ANALISIA

## 1 SARRERA

### 1.1. 2008-2016 AURRERAPEN DOKUMENTUA GAURKOTZEKO ETA GARATZEKO PREMIAREN JUSTIFIKAZIOA

Aurrerapen Dokumentua egiteko erabilitako argudioa izan zen, denboraren joana dela-eta, GHHKPO –Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2002ko abenduaren 17an behin betiko onartutakoa– eguneratu beharra zegoela. Horixe izan zen dokumentua idazteko arrazoi nagusia, *denboraren joanak hutsak Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketan eragindako aldaketak* erantsi ahal izateko. Eta horixe da, halaber, 2008-2016 AD garatu beharra justifikatzen duen arrazoi nagusia. Eta, zehazki, AD idatzi zenetik igaro diren lau urte hauetan, honakoak gertatu izana:

- ADan zehaztutako hainbat proba pilotu burutu dira, esate baterako, maneiatu gabeko materia organiko konpostagarria edukiontzitan gaika biltzea, bakoitzaren borondatez; maneiatu gabeko MOKaren bilketa gainditu egin da eta maneiatutako MOKaren bilketa sartu; autokonpostatzeko goi-mailako esperientziak abiarazi dira; Lapatzeko konpostatze-planta martxan jarri da, ADan azaldutako teknologiarekin; eta gaika biltzeko esperientzia berriei ekin zaie, partaidetza maila handiarekin eta zatiki desberdinen bilketa maila handiarekin.
- Krisialdi ekonomikoa etorri da –eta dirau–; horrek zuzen-zuzeneko eragina du hiri hondakinen sorreran eta, ondorioz, ADko aurreikuspenetan.
- Gainditu egin dira kudeaketa pribatuko hiri hondakinen –EH eta kudeaketa pribatuko IMEHAK– gaikako bilketaren inguruan 2016. urterako ezarritako helburuak; izan ere, 2011. urtean, mankomunitateek sortutako eta kudeatutako hiri hondakin guztien % 32 gaika bildu da.
- Aldaketak izan dira hondakinen kudeaketari buruzko araudian.
- Udal hauteskundeak izan dira, eta horrek esan nahi du erakundeen arteko adostasunetan eragile berriak sartu behar direla.
- Eztabaida politiko, sozial eta instituzional bizia izan da 2008-2016 ADan planteatutako eszenatokien inguruan, eta horrek, planteamenduak garatu eta justifikatu beharra dakar berarekin.

Ilido horretan, 2008+4 AD garatzeko ezinbestekoa da:

- Hondakinen sorrerari buruz eta gaikako bilketari buruz eskura dauden datu berriak aztertzea.
- GHHKPOan eta 2008-2016 ADan egindako aurreikuspenak, lau urte hauetan zehar egin den benetako kudeaketarekin alderatzea.
- Hondakinen sorrerari buruzko eta gaikako bilketari buruzko aurreikuspenak eguneratzea, gaur egungo joeraren eta errealitatearen arabera.
- Trataera premiak berriro dimentsionatzea eta hondakinak kudeatzeko eredua zehaztea, gaur egungo errealitatearen eta aurreikuspen berrien arabera.

Bestetik, hondakinei buruz Europako Legebiltzarrak eta Europar Batasuneko Kontseiluak 2008ko azaroaren 19an emandako 2008/98/EE Zuzentarauak, zuzentarau jakin batzuk indargabetzen dituenak, hauxe dio 30. artikuluan, planak eta programak ebaluatu eta berrikusteari buruz: “1. Estatu kideek ziurtatu behar dute hondakinak kudeatzeko planak eta hondakinen prebentziorako programak, gutxienez sei urtetik behin aztertu eta ikuskatuko direla, behar den moduan eta dagokienean, betiere 9. eta 11. artikuluetan xedatutakoari jarraituz”.

Gainera, “Euskal Autonomia Erkidegoko hiri hondakinak planifikatzeko eta kudeatzeko zuzentarauek” ezarritakoaren arabera, hiri hondakinak sortzen eta kudeatzen diren eszenatokiak bost urtean behin eguneratu egin behar dira Erkidegoko hiru lurraldeetarako.

Arrazoi horiek guztiek justifikatu egiten dute, 2008-2016 AD berrikusteko eta eguneratzeko premia, eta gorago azaldu ditugun alderdietatik etorritako ondorioak dokumentu horretan txertatzea.

## 1.2. ALDEZ AURREKO DEFINIZIOAK ETA KONTZEPTUAK

GHHKPOan eta ADan jasotako aurretiazko definizioak eta kontzeptuak mantendu eta gainera, edukian txertatuko dira.

### 1.2.1. PLANAREN HELBURUA, LURRALDE ESPARRUA ETA EPEMUGA

GHHKPOan onartutakoak mantenduko dira; hau da, 2008+4 ADGE agiriaren helburua da *hiri hondakinei etorkizunean egingo zaien kudeaketari esker, herritarrek kalitateko zerbitzua jaso dezaten lortzea, hau da, Gipuzkoako lurralde historiko osoan ahalik eta kalitate zein kostu berdinen izango duen eta ingurumenaren babes mailarik handienak lortuko dituen zerbitzua, alegia, betiere indarrean dagoen legeriak nahiz garapen iraunkorreko printzipioek ezarritako baldintzak beteko diren moduan.*

Lurralde esparrua ere, GHHKPOan zehaztutakoa bera izango da; hau da, *Gipuzkoako lurralde historikora mugatuko da. Honako zortzi mankomunitate hauek hartzen ditu: Sasieta, Urola Erdia, Urola Kosta, Debagoiena, Debabarrena, Tolosaldea, San Marko eta Txingudi. Udalerriekin batera, horiek arduratzen dira hiri hondakinak kudeatzeaz. Mankomunitateek hartzen duten lurralde esparrua, Gipuzkoako lurralde historikoaren esparru bera da, Debabarrena mankomunitatean sartuak dauden eta Bizkaiko lurralde historikokoak diren bi udalerririk ez (Ermua eta Mallabia). Beraz, esparru hori izango da Plan honen aplikazio eremua”.*

Azkenik, epemuga ere GHHKPOan aurreikusitakoa bera izango; hau da, 2016. urtea.

### 1.2.2. HH(-) HONDAKINEN SAILKAPENA

Hiri hondakinak GHHKPOan bezalaxe sailkatu dira:

**HH = Hiri hondakinak**

EH = Etxeko hondakinak

IMEHA = Industriako, merkataritzako eta erakundeetako hondakin asimilagarriak, kudeaketa publikokoak

EEH = Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak, etxebizitzaren konponketa obra txikietan sortutakoak.

2008+4 ADGEak ez du planteatzen etxeetan sortutako EEHen kudeaketa planifikatzea. Beraz, dokumentu honetan aipatzen diren hiri hondakinak HH (-) gisa irudikatu ditugu. Horrekin adierazi nahi dugu EHH eta IMEHA korranteetara mugatuko direla, eta horrenbestez, etxeetan sortutako EEHak Planetik kanpo geratuko direla.

**HH (-) = Hiri hondakin mugatuak**

EH = Etxeko hondakinak

IMEHA = Industriako, merkataritzako eta erakundeetako hondakin asimilagarriak, kudeaketa publikokoak

### 1.2.3. 2008-2016 AD EGUNERATZEA ETA GARATZEA BULTZATU DUTEN HONDAKINAK

GHHKPOren eta ADaren helburuetako bat zen Gipuzkoako hondakin uren araztegietan (HUA) sortutako lohiak eta kudeaketa pribatuko IMEHAK tratatzea.

Hondakin uren araztegietako lohiak ez daude hori hondakin gisa katalogatuak; horregatik, helburuetako bat sektore desberdinen artean (nekazaritza eta abeltzaintza, esate baterako) sinergiak sortzea bada ere, 2008+4 ADGE honetan HH(-) bakarrik hartuko dira kontuan, eta horrenbestez, ez dira planteatuko hondakin horien kudeaketa itxuraldatu eta korapilatu lezaketen bestelako korronteak.

Ez da ahaztu behar kudeaketa pribatuko IMEHAK ez direla azpiegitura publikoetan tratatzen; beraz, ezin ditugu dokumentu honetan sartu. Hondakin pribatuei buruz daukagun informazioa oso partziala da; izan ere, udalei, mankomunitateei edo Foru Aldundiari berari eman nahi izan zaion informazioaren baitan egon da gaurdaino. Mankomunitate askoren informazio erabilgarriaren arabera, kontabilitatean ez dira sartu; beste zenbaitetan, batzuk bakarrik kontabilizatu dira; eta, Foru Aldundiaren HHKSOean kontabilizatutako korronte batzuk, mankomunitateek ere beren kontabilitatean sartuak dituzte.

Gaur egungo errealitate hori izanik, gaikako bilketaren helburuei buruzko datuak eta emaitzak itxuraldatzea besterik ez dute lortzen kudeaketa pribatuko hondakin asimilagarriek. ADak birziklatzeko moduko hondakintzat jotzen ditu % 100ean; horrek ez du uzten gaikako bilketaren benetako emaitzak erakustea, eta zaildu egiten du kudeaketa publikoko hondakinak tratatzeko azpiegiturei tamaina egokia ematea.

5. taula.

Kudeaketa pribatuko IMEHA sorreraren bilakaera.  
Iturria: Geuk egina

	2008	2009	2010	2011
ZURA, PRIBATUAK	34.080,00	43.290,00	43.573,00	51.971,00
PAPERA/KARTORIA, PRIBATUAK	30.871,00	21.927,00	19.385,00	18.081,00
PLASTIKOA, PRIBATUAK	1.339,00	1.235,00	1.505,00	1.455,00
INAUSKETA, PRIBATUAK	0,00	2.000,00	1.250,00	570,00
BIRZIKLAGARRI PRIBATUAK, OROTARA	66.290,00	68.452,00	65.713,00	72.077,00

Aurreko taulan ikus daitekeenez, kontabilizatu diren kudeaketa pribatuko IMEHA horiek kudeatzaile eta berreskuratzaile pribatuek kudeatu eta tratatu dituzten hondakin birziklagarriak dira. Hau da, ez dira aintzat hartu behar azpiegitura edo instalazio publikoetan eman beharreko trataera premiak zehazterakoan. Korronte horietara joaten dira hondakin geldo eta ez-arriskutsuen zaborteği pribatuetara isurtzen diren hiri hondakin asimilagarriak.

### 1.2.4. LEHEN MAILAKO HONDAKINAK, BIGARREN MAILAKO HONDAKINAK ETA AZKEN HONDAKINAK

KUDEAKETAREN IKUSPEGITIK BEGIRATUTA, GHHKPOAK BEZALAXE, 2008+4 ADGEAK ERE LEHEN MAILAKOETAN ETA BIGARREN MAILAKOETAN SAILKATU DITU HIRI HONDAKINAK, HONAKO HONELA DEFINITURIK:

- LEHEN MAILAKO HONDAKINAK. Sortzaileengandik zuzenean jasotzen direnak, gero inolako sailkapen edo bereizketarik egin gabe eta inolako tratamendurik eman gabe, dela birziklatzea, dela konpostatzea edo dela beste edozein balorizazio-sistema.

- **BIGARREN MAILAKO HONDAKINAK.** Lehen mailako hondakinen trataera plantetan errefusa gisa sortu direnak; esate baterako, ontziak bereizteko eta sailkatzeko plantetan, birziklatzeko plantetan, materia organiko konpostagarria konpostatzeko edo biometanizatzekeo plantetan, edota trataera biologiko mekanikoa emateko plantetan.
- **AZKEN HONDAKINAK.** Unean uneko baldintza ekonomiko eta teknikoan arabera, tratatu ezin diren hondakinak dira, hau da, zati balorizagarria atera ezin zaienak, eta izan lezaketan eduki kutsagarri edo arriskutsua murriztu ezin zaienak; betiere kontuan harturik gai honi buruz emandako definizioa, bai Frantzian indarrean dagoen legerian, edo 1994ko legeria alemaniarrean, bai substantzien ziklo itxiari eta hondakin kudeaketari buruzko legean, eta bai TASI hondakinei buruz 1993an emandako araudi teknikoan. Oro har, AD hau interpretatzeak esan nahi du azken hondakinak, gorago definitutako bigarren mailako hondakinen parekotzat jo behar direla.

#### 1.2.5. HIRI HONDAKINEN KUDEAKETAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

Hiri hondakinen kudeaketan, atxikitako jarduera eta azpiegitura sail bat sartzen da; horiek guztiek behar bezala koordinatuak egon behar dute, baldin eta zero hondakin lortzera bideratutako emaitzak erdietsi nahi badira; hau da, hondakin sorreran prebentzioa maximizatzea, HH(-) ahalik eta gehien birziklatzea, eta gainerako zatikia, edo birzikla ezin den zatikia minimizatzea lortu nahi bada.

Gipuzkoan, honako jarduera hauek guztiak sartzen dira HH(-) kudeatzeko katean:

- HH(-) biltzeko logistika zehaztea eta hondakinak gaika biltzeko sistema zabaltzea.
- Garbigune, minigarbigune eta mikrogarbiguneak kudeatzea.
- HH(-) masan bildu eta trataera-plantara edota transferentzia-estazioetara garraiatzea.
- Bereizita bildutako HH(-)trataera-plantara edota transferentzia-estazioetara garraiatzea.
- Transferentzia-estazioak kudeatzea.
- Bolumen handiko hondakinak, ehunkiak, liburua, eta abar prebenitzeko eta berrerabiltzeko plantak kudeatzea.
- Ontzi arinak bereizteko eta sailkatzeko plantak kudeatzea.
- Birziklatzeko plantak kudeatzea.
- Konpostatzeko edota biometanizatzekeo plantak kudeatzea.
- Trataera biologiko mekanikoa egiteko plantak kudeatzea.
- Gordetegi kontrolatuak kudeatzea.

Kudeaketarako jarduera multzo horretan, erakunde batzuek eta besteek parte hartzen dute. HH(-) kudeatzeko ahalmena udalei dagokie. Udalak, beren kudeaketa optimizatu nahian, mankomunitateetan elkartu dira, eta arestian aipatutako jarduera horietako batzuk mankomunitateen esku utzi dituzte. Hori ez da modu berdinean gertatu Gipuzkoako zortzi mankomunitateetan. Hori horrela, mankomunitate batzuetan, hondakin guztiak mankomunitateen bitartez biltzen dira; besteetan, berriz, zatiki batzuk mankomunitateek biltzen dituzte eta beste zatikiak udalek biltzen dituzte oraindik ere.

AD garatzeko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa sortu zen. Eta honek, mankomunitate bat baino gehiago zerbitzatzen dituzten trataera azpiegiturak kudeatzea du helburu. HH(-)en kudeaketa orokorrak Europako zuzentarauak beteko baditu, hondakinak kudeatzeko hierarkia errespetatuko badu, eta birziklaezina den gainerako zatikia eta HH(-) en kudeaketak eragindako inpaktuak minimizatzea ahalbidetuko badu, erakunde guztiek bere egin behar dute ADan jasotako zero zabor helburua.

## **MANKOMUNITATEEK ETA UDALEK BURUTZEN DITUZTEN JARDUERAK ETA ZEREGINAK**

Mankomunitateak eta udalak ari dira burutzen, hondakin-sortzailearen eta kasuan kasuko trataera-plantaren edo transferentzia-estazioaren artean egindako hondakin-kudeaketarekin lotuak dauden jarduera eta azpiegitura guztiak; baita bakoitzari dagokion esparruko prebentzio lanak ere. Hauek izango lirateke, aipatutako erakundeekin zerikusia duten prebentzio lanak eta hondakinak kudeatzeko jarduera eta azpiegiturak:

- Prebentzio egintzak
- Autokonpostatzea eta konpostatze komunitarioa ezartzea, mantentzea eta dagokion jarraipena egitea.
- Herritarren sentsibilizazioa eta parte hartzea sustatzeko egintzak
- HH(-) biltzeko logistika zehaztea eta hondakinak gaika biltzeko sistemak zabaltzea, geratzen den zati kopurua minimizatuko den moduan.
- Garbigune, minigarbigune eta mikrogarbiguneak kudeatzea.
- HH(-) masan bildu eta trataera-plantara edota transferentzia-estazioetara garraiatzea.
- Bereizita bildutako HH(-) trataera-plantara edota transferentzia-estazioetara garraiatzea.

## **GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAK BURUTZEN DITUEN JARDUERAK ETA ZEREGINAK**

Erakunde honek gauzatzen ditu hondakinak biltzen direnetik hasi eta mankomunitate bat baino gehiago zerbitzatzen dituzten azpiegiturretan hondakin horiek tratatu arte, hondakin-kudeaketarekin lotuak dauden jarduera eta azpiegitura guztiak; baita lurralde historikoan ezar daitezkeen prebentzio lanak ere. Prebentzio jarduera hauek eta hondakinak kudeatzeko azpiegitura hauek sartuko lirateke:

- Herritarren sentsibilizazioa eta parte hartzea sustatzeko egintzak
- Transferentzia-estazioak kudeatzea.
- Mankomunitate bat baino gehiago zerbitzatzen dituzten plantak kudeatzea; esate baterako:
  - Bolumen handiko hondakinak prebenitzeko eta berrerabiltzeko plantak.
  - Ontzi arinak bereizteko eta sailkatzeko plantak.
  - Birziklatzeko plantak kudeatzea.
  - Konpostatzeko edota biometanizatze plantak kudeatzea.
  - Trataera biologiko mekanikoa egiteko plantak kudeatzea.
  - Zaborteziak kudeatzea, harik eta geratzen den gainerako zatikia tratatzeko plantak martxan jartzen diren arte.
  - Bigarren mailako hondakin egonkortuen gordetegi kontrolatuak kudeatzea, geratzen den gainerako zatikia tratatzeko instalazioak eraikitzen bukatzean.

Oro har, prebentzio lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatuko lituzke. Baina, jardueren eta instalazioen kudeaketa zehatzaren behin betiko banaketa, hainbat akordioaren emaitzak erabakiko du: batetik, eskualde mailan, udalek eta mankomunitateek hartzen dituzten erabakien emaitzak, eta bestetik, mankomunitateek, Kontsortzioak eta Foru Aldundiak Kontsortzioaren beraren esparruan kasuz kasu hartzen dituzten erabakien emaitzak.

#### 1.2.6. 2008+4 ADGEAN GARATUTAKO PLANIFIKAZIOARI BURUZKO ARGIBIDEAK

##### ADGE honetan garatutako planifikazioaz:

- ADaren izaera, eguneratzea eta garapena, dokumentu honetan zehaztutako helburu, jarduera eta azpiegitura guztietara zabaltzen da. Hala ere, udalek eta mankomunitateek, ezarritako helburuak lortzeko egokien iritzitako bitartekoak erabili ahal izango dituzte, beren jarduera-eremuarekin zerikusia duen orotan.
- Hondakinen hierarkiako goi-mailerako –prebentzioa, berrerabiltzea, birziklatzea eta konpostatzea– proposatzen diren kudeaketa-helburuak, gutxieneko helburuak dira; beraz, ahal izanez gero behintzat, gainditu egin behar dira. Hau da, udalen eta mankomunitateen iritziz, beraiei dagokienez, planifikazioko dokumentu horietan aipatutako goi-mailako helburu horiek lortzeko gai badira, hondakinak biltzeko eta kudeatzeko sistema eraginkorragoak erabilita, gaitasun hori gauzatu egin beharko lukete.



## 2 GARAPEN ESTRATEGIKO ETA JURIDIKO BERRIAK 2008-2012 EPEALDIAN. ESTRATEGIA INDARREAN DAGOEN LEGERIARA MOLDATZEA

Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko estrategia, helburu berriei begira eta hondakin gaietan Batasunean eta estatuan indarrean dagoen filosofiari jarraitzeko diseinatu da bereziki.

Horrek berebiziko garrantzia du; izan ere, hondakinak kudeatzeko sistemak eta sistema horiei lotutako azpiegiturak luzez egon beharko dute martxan. Hondakinen politika ia gehienak, Europar Batasunak emandako artezpideei jarraitzen die; hortaz, hondakinen inguruko eta, oro har, ingurumenari buruzko politika europarrak gaur egun eta etorkizunean izango duen garapena aurreikusteko gai izan behar dute, azpiegituren alorrean orain hartzen diren erabakiek. Oso oso garrantzizkoa da, orain egiten diren azpiegiturak, Batasunaren hondakin-politikatik gaur edo bihar etorriko diren betekizunak aurreikusteko moduan planifikatzea.

### 2.1. ALDAKETA ESTRATEGIKOAK ETA JURIDIKOAK

Aurrerapen Dokumentua garatzeko agiri honen esparru estrategikoa eta juridikoaren eguneraketak, 2008ko irailean hasi (AD argitaratu zen egunean) eta 2012ko maiatzera artekoa hartzen du. Hauek dira hiri hondakinen alorrean gaur arte gertatu diren aldaketa estrategiko eta juridikoak:

#### EUROPAR BATASUNEAN

- Europako Legebiltzarrak eta Europar Batasuneko Kontseiluak 2008ko azaroaren 19an emandako 2008/98/EE Zuzentaraua, hondakinei buruzkoa.
- Europako Batzordearen 2011/753/EU Erabakia, 2008/98/EE Zuzentaraua betetzearen jarraipena egiteko, zuzentzarauaren 11. artikuluan, aurreikusitako helburuak kalkulatzeko erregelak ezartzeari buruzkoa.
- Europako Legebiltzarraren 2012ko urtarrilaren 19ko legegintzako Ebazpena, Kontseiluaren Jarrerari buruzkoa, lehen irakurraldian, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei (TEEH) buruz Europako Legebiltzarrak eta Kontseiluak P7\_TA (2012) 0009 zuzentaraua emateko. TEEH zuzentzarau berria, Europar Batasuneko buletinean laster argitaratuko dena.
- 2012ko apirilako Ingurumen Egintzaren Zazpigarren Programaren (7 PAM) lehentasunak.
- Lurzorua babesteko Estrategia Tematikoa, COM (2006) 23
- Baliabideen Erabilera Europa Eraginkor Bateranzko Bide Orria, COM(2011)571
- Europako Legebiltzarraren Ebazpena, 2012ko urtarrilaren 19koa, elikagai xahuketa 2025erako erdira murriztearen aldekoa
- Lohiei buruzko Europako Zuzentzaruari (86/278 zuzentzaraua) egiten ari zaion berrikuspena

#### ESTATU ESPAINIARREAN

- Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen Legea (22/2011)

##### 2.1.1 HONDAKINEN KUDEAKETARI LOTUAK DAUDEN BATASUNEKO ETA ESTATUKO ESTRATEGIA BERRIAK

Hondakinen eta lurzoru kutsatuen lege berriak, 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, berez, Europako Legebiltzarrak eta Europako Kontseiluak 2008ko azaroaren 19an emandako Hondakinen Esparru Zuzentzaraua (2008/98/EE) berrezartzen du, eta bilakaera nabarmena da AD definitu zeneko esparru juridikoarekin alderatuta.

Izan ere, Europako Batzordeak hondakinen prebentzioari eta birziklatzeari buruz ezarritako estrategia tematikoak (2005eko azaroaren 21ekoa), berretsi eta gainditu egin du Hondakinen Esparru Zuzentzarauak. Hondakinen Esparru Zuzentzarauak prebentzioari ematen dio lehentasuna, sorrera murriztea lortzeko urratsik inportanteena delakoan. Ondorioz, estatu kide bakoitzak bere prebentzio planak argitaratzeko betekizuna ezarri du. Hori aipatzen da estrategia tematikoan ere (29. art.).

*1. Estatu kideek, hondakinen prebentzio programak egingo dituzte, beranduenez ere 2013ko abenduaren 12a baino lehen. Eta programa horiek, 1. eta 4. artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo dituzte.*

*Programa horiek 28. artikuluan aurreikusitako hondakinen kudeaketa-planetan edota ingurumen politikako beste programaren batean txertatuko dira, bidezkoa zein den. Edo bestela, programa bereizi bezala funtzionatuko dute. Programa horietakoren bat hondakinak kudeatzeko planetan edo beste programa batzuetan txertatuak badaude, hondakinak prebenitzeko neurriak argi eta garbi bereiziko dira.*

*2. 1. atalean aipatutako programetan, hondakinak prebenitzeko helburuak finkatuko dira. Estatu kideek, gaur egun dituzten prebentzio neurriak azalduko dituzte, eta IV. eranskinean adibide moduan adierazitako neurrien edo bestelako neurri egokien erabilgarritasuna aztertuko dute.*

*Helburu eta neurri horien helburua, hazkunde ekonomikoaren eta hondakinen sorrerarekin lotutako ingurumen eraginaren arteko loturak apurtzea izango da (...).*

Bestetik, zuzentzarau berri horrek halako anbigutasun batzuk argitzen ditu; esate baterako, birziklatzea edo konpostatzea, eragimen energetiko handiko errausketaren maila berean jartzea (AD, 31. orria. *Eragimen energetiko handiarekin, hondakin-fluxu jakin batzuk birziklatzea edo konpostatzea bezain ona izan liteke*). Ildo horretan, hondakinen esparru zuzentzarau berriko hondakinen hierarkiak (4. art.) segurtasuna ematen du lege aldetik; eta, eragimen energetiko handiarekin erraustearekin alderatuta, lehentasuna ematen dio birziklatzeari eta konpostatzeari (Hondakinen eta lurzoruen legea, 8. art.).

Izan ere, hondakinen esparru zuzentzarauak ematen duen neurri argiena zera da, edozein azpiegitura diseinatzerakoan, hondakinen prebentzioari eta balorizazio materialari lehentasuna eman behar zaiela, hondakinen hierarkiak ezartzen duen bezalaxe:

#### **8. artikulua.- Hondakinen hierarkia.**

*1. Administrazio eskudunek, hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko politikak eta gai horri buruzko legeria garatzerakoan, hondakinen hierarkiari jarraituko diote ingurumen arloan emaitza orokor hoberena lortzeko, betiere lehentasunezko hurrenkera honen arabera:*

- a) Prebentzioa;*
- b) Berrerabiltzeko prestatzea;*
- c) Birziklatzea;*
- d) Bestelako balorizazio motak, balorizazio energetikoa ere barne dela; eta*
- e) Ezabatzea.*

Balorizazio materialari ematen zaion garrantzi hori sendotu egiten da gaur arte izan diren birziklatzeko helburu bakarrekin (zuzentzarauaren 11. artikulua eta hondakinen eta lurzoruen legearen 22. artikulua): hiri hondakin solidoen % 50 birziklatzea, "paper, plastiko, beira eta metaletan behintzat".

*22.a) artikulua.- 2020. urtea baino lehen, berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzera bideratzen diren paper, metal, plastiko, bio-hondakin eta bestelako zatiki birziklagarrien kopurua, etxeetako eta merkataritzako hondakinetan, batera hartuta, gutxienez pisu osoaren % 50era iristea lortu behar da.*

Merezi du gogoratzeak estrategia bat berak ere ezin duela eman balorizazio materialaren % 50a, non eta MOK gaika biltzeko sistema eraginkor bat ezartzen ez den. Ildo honetan, zuzentarauak, 22. artikuluan, hondakin organikoak gaika biltzeko deia egiten du, materia organikoa itzulita lurzoruek beren emankortasuna berreskuratzeko aukera izan dezaten.

Lurzoruen Europako Estrategiak eta Europako Programak Aldaketa Klimatikoaren aurkako borrokari ematen dioten definizioak, are gehiago nabarmentzen dute materia organikoak lurzoruan duen funtsezko zeregina, emankortasuna, erresilientzia eta biodibertsitatea ziurtatzeko; eta horrela, basamortutzea, uholdeak, eta higaduraren ondoriozko lurzoru galerak ekiditeko. Helburu nagusia da, aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko, atmosferara zuzenean karbonoa igortzen duten beste edozein trataera termiko aukera ordeztatu, lurzoruan karbonoa pilatzea. Azkeneko horren helburu estrategikoa ondo definitu eta sustatua dago Europako "Climsoil" txostenean. Hauxe dio:

*"Lurzoruetan karbonoa pilatu beharra azpimarratzen du informeak. Teknika horren kostua lehiakorra da eta berehala eskura daiteke, ez du teknologia berririk edo probatu gabeko teknologiarik eskatzen, eta ekonomiaren beste edozein alorrekin parekatzeko moduko arintze-gaitasuna du".*

## **ALDAKETA KLIMATIKOA ETA IGORPENAK**

Esparru zuzentarauak, 7. artikuluan azaltzen du giza osasuna babesteak, eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan koherentea izateak, duten garrantzia:

- 1. Agintari eskudunek behar diren neurri guztiak hartuko dituzte, hondakinen kudeaketa giza osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumena kaltetu gabe egingo dela ziurtatzeko.*
- 2. Hondakinen alorrean hartzen diren neurriek bat etorri behar dute aldaketa klimatikoaren aurka egiteko estrategiekin.*

Igorpenak minimizatzearen, eta trataera termikoa daramaten prozesuei lotutako arriskuak ekiditearren, Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko estrategiak, hondakinen hotzeko tratamenduak bakarrik aurreikusten ditu. Estrategia birziklatzearen maximizaziora bideratzeak esan nahi du, lehengai berriak ordezkatzeko, igorpen eta energia asko saihestu egingo direla. Garraioarekin lotutako igorpenei dagokionez, berriz, tratamendua deszentralizatzea da strategiaren puntu nagusienetako bat; horrela, hondakinen joan-etorriak murriztu egingo dira. Neurri horiek guztiek koherentzia eta eraginkortasuna ematen dute aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan.

Giza osasunari dagokionez, Zubietan aurreikusitako erraustegiaren igorpen toxikoen gaia izan zen ADan desadostasun handiena eragin zuten puntuetako bat. Planteatutako dimentsionatze horretan azpiegitura hori baztertzearrekin, eta lehen mailako hondakin guztiak trataera mekaniko eta biologikoko plantetan tratatuko direla bermatzearekin, ezabatu egiten da hondakinak erretzeak eragindako igorpenei dakarten arriskua; eta horrela, hobetu egiten dira bai airearen kalitate itzaropenak, eta baita Gipuzkoako hondakin toxikoak –erraustegiko errautsak, esaterako– tratatzeko premiak ere. Inportantea da, igorpenei eta energia zaintzeari dagokionez irabazlea den aukera hau, hasierako proposamenen baino inbertsio-kostu askoz txikiagoaz lortzea.

Aintzat hartu behar da, halaber, Europako Zuzentarauari (86/278 Zuzentaraia) egiten ari zaion berrikuspenean, funtsezko garrantzia ematen zaiola lohiak nekazaritzarako berreskuratzeari; izan ere, inportantea baita materia organikoa lurzoruari itzultzea eta lohi horietan dagoen fosforoa berreskuratzea (fosforo-meategien ustiapenak daraman erritmoan, kalteak arintzeko neurriak ezartzen ez badira behintzat –adibidez, hondakinetan dagoen fosforoa berreskuratzea– munduak P eskasia larria pairatuko du hamarkada gutxi barru). Faktore hori inportantea da; izan ere, errausteko diseinatuak dauden gaitasunek, lohi kopuru handia sartzen dute sarritan (hori zen, hain zuzen ere, Gipuzkoako erraustegiaren kasua).

## **TRESNA ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOEN HONDAKINEI BURUZKO ZUZENTARAU BERRIA, 2002/96/EE ZUZENTARAU ORDEZKATZEKO**

2002ko zuzentaraia, oraindik indarrean den horrek, hainbat obligazio ezartzen zizkien tresna elektriko eta elektronikoen fabrikatzaile eta banatzaileei. Hala, 5.5 artikuluan, estatu kideei exijitzen zien berrmatzea “...beranduen 2006ko abenduaren 31n jasotzea, gaikako bilketa metodoak erabiliz, batez beste gutxienez lau kilogramo, urteko eta biztanleko, etxe partikularretatik datozen TEEHei dagokienez.” Ikusten denez, 2011n Gipuzkoan izan diren datuen arabera TEEHen bilketa datuak 1,53 kilokoak izan dira, biztanleko; hau da, Europar Batasunaren eskakizunetik nabarmen behera daude.

TEEHei buruzko zuzentaraia berrikuspenean Kontseiluaren berrespenaren faltan dago, eta aurreikusten da 2012ko uztailaren agertzea Europar Batasunaren buletinean. Berrikuspenean horretan, pertsonako 4 kilogramo baino haratago jotzen da -espainiar estatuak eta Gipuzkoak ez dute kopuru hori betetzen-, eta merkaturatutako TEEHetatik % 65 edo urtean sortutako TEEHetatik % 85 biltzeko helburua jartzen da, 2020rako.

*(16) Bilketaren arloan helburu asmo handikoak finkatzeko oinarrian, sortutako hondakin kopuruak egon beharko du, behar bezala harturik kontuan estatu kideetan produktuek dituzten bizi-zikloak, merkatu ez saturatuak eta bizi-ziklo luzeak aparatuak. Testuinguru honetan, etorkizun hurbilean metodologia bat landu beharko da, TEEHetan oinarriturik, hondakin bilketaren indizeak kalkulatu ahal izateko. Gaur egun dauden kalkuluen arabera, sortutako TEEHetatik % 85eko bilketa indizea, gaingiroki, azken hiru urtean merkatuan sartutako TEEen batez besteko pisuaren % 65eko bilketa indizearen parekoa da.*

Honek askoz politika proaktiboagoak eskatuko ditu gaikako bilketaren arloan, gaur egun gainerako zatikiaren barnean desagertzen diren TEEHak azaleratzeko gai izango diren politikak alegia. 2020rako ezarrita dagoen TEEHen derrigorrezko bilketa igoerak berekin ekarriko du gainerako zatikian duen presentzia murriztea, eta igotzea, aldiz, frakzio edo zatiki horretarako birziklatze edota transferentzia zentroen eskaera. Puntu hauek kontuan hartzen dira azpiegitura berrietarako proposamen kalkuluetan.

## **BALIABIDEEN ERABILERAN EUROPA ERAGINKOR BATERANZKO BIDE ORRI**

Baliabideen erabileran Europa eraginkor bateranzko Bide Orri (COM (2011) 571), Europar Batzardeak Europar Parlamentuari eta Kontseiluari eman dizkie aditzera ekologikoki eta ekonomikoki iraunkorra izango den etorkizuna berrmatzeko hartu beharreko neurriak. Bide orri honek Europar Parlamentuaren babesa jaso zuen 2012ko maiatzaren 24an, P7\_TA (2012)0223 ebazpenaren onarpenarekin.

Bide orriaren 3.2 puntuan ezartzen da per capita hondakin sorrera murrizteko, bilketa mailarik handienak emateko gai izango den gaikako bilketa zabaltzeko, eta gainerako zatikia ia-ia zeroraino txikitzeko asmoa. Europar subsidioak hondakinen hierarkiako goreneko mailak (prebentzioa, berrerabilpena eta birziklatzea) finantzatzera birbideratzea ere proposatzen du, errauste planta edo zabortege azpiegiturretara beharrean.

2020an, hondakinak baliabide gisa kudeatuko dira. Hondakin kopuruek –biztanleko- jaitsiera nabarmena izango dute. Hondakinak birziklatzea eta berrabiltzea aukera erakargarriak izango dira, ekonomiaren ikuspegitik, operadore publiko eta pribatuentzat, zeren eta gaikako bilketa oso zabaldua egongo baita, eta lehengai sekundarioetarako merkatu funtzionalak garatuta egongo baitira. Material gehiago birziklatuko dira, tartean direla ingurumenaren gainean eragin adierazgarria dutenak eta oinarrizko lehengaiak. Hondakinei buruzko legedia oso-osorik aplikatuko da. Erabat desagerrarazita egongo da hondakinen legez kanpoko garraioa. Energia berreskuratzea material ez-birziklagarrietara mugatuko da, ia-ia erabat desagertuta egongo da zabortegietako deskarga, eta kalitate altuko birziklatzea bermatuta egongo da.

#### Batzordeak:

- Bultzatu egingo du material sekundarioen merkatua eta material birziklatuen eskaera, pizgarri ekonomikoak eskainiz eta hondakin batek hondakin izateari noiz uzten dion zehazteko irizpideak garatuz (2013/2014an).
- Prebentzio, berrerabiltze, birziklatze, berreskuratze eta hondakinak zabortegietara desbideratzearen arloan indarrean dauden helburuak berrikusiko ditu, hain zuzen berrerabilpen eta birziklatzean oinarritutako ekonomia bateranzko bidean barrena abiatzeko, zerotik hurbileko hondar-zaborrez (2014an).
- Material birziklatuaren gutxieneko tasa batzuk sartzea eta iraupen eta berrerabilpen irizpide batzuk finkatzea ebaluatuko du, oinarrizko produktuen kasuan produktoreak duen erantzukizuna zabaltzeko aukerarekin batera (2012an).
- Hondakin-fluxu desberdinei buruzko legediak, koherentzia hobetzearen, zein arlotan lerroka litekeen ebaluatuko du (2013/2014an).
- Jarraitu egingo du lanean, Batasun barruan eta gure nazioarteko bazkideekin batera, hondakinen legez kontrako garraioa desagerrarazteko, arreta berezia jarriz hondakin arriskutsuen kasuan.
- Bermatuko du Batasunaren aurrekontuaren bidezko finantzaketa publikoak lehentasuna ematea hondakinen hierarkian goragoko maila batean dauden jardueri, hondakinei buruzko esparru zuzentzarauak definitzen duen hondakinen hierarkiaren arabera betiere (esate baterako, birziklatze-plantei lehentasuna, hondakinak ezabatzearen aurrean) (2012/2013an).
- Bultzatu egingo du estatu kideek elkarrekin trukatzea hondakinen bilketa eta tratamenduaren arloko praktikarik egokienak, eta Batasunak hondakinei buruz duen araudiak jasaten dituen urraketak modu eraginkorrago batez borrokatzeko neurriak garatuko ditu (2013/2014an).

#### Estatu kideek:

- Bermatu egin beharko lukete Batasunak hondakinen arloan duen ondarearen erabateko aplikazioa, horretan jaso halaber gutxieneko helburuak finkatzea hondakinen prebentzio eta kudeaketarako estrategia estatalen bidez (...).

Beraz, kontuan harturik Europar Batzordearen eta Europar Parlamentuaren aurreikuspenak, azpiegitura malguak eraikitzea da zentzua duen bakarra, hau da, hondar-zaborrak etengabe beherantz doazen ekonomia bateranzko trantsizioa gobernatzeko gai diren azpiegiturak. Malgutasun hori trataera mekaniko-biologikoko plantek eman dezakete, gainerako zatikiak portzentaje altua hartzen duen egoera batetik kontrako egoerara igarotzea ahalbidetzen baitute, instalazio bera erabilita. Aitzitik, errauste planta batek, duen neurria duela, tope bat ezarriko lioke murriztu

beharreko gainerako zatikiari, zeren eta planta horiek ezin baitute funtzionatu ahalmen erdiz edo baxuz; eta 20 urteko bizi-epa izanik, bizkorregi geratuko litzateke zaharkituta, egindako inbertsioa berreskuratzeko aukerarik gabe. Izan ere, Europar Parlamentuak eta Europar Batzordeak galarazi egin nahi dute, 2020rako, konpostagarria edo birziklagarria dena erretzea; eta horrek lanean segitu ahal izateko behar beste hondakin gabe lagako lituzke errausteplanta gehienak.

Osterantzean, zabortegeien erabilerean gainerako galarazpen progresiboa eta bide orriak gomendatzen dituen tasa altuak direla eta, beste pizgarri bat dugu benetan birziklatze maila altuko eta errefus maila baxu-baxuko ekonomia bateranzko trantsizio bat egingo dela bermatzeko. Bide orriak bultzatu nahi duen fiskalitate ekologikoaren erreforma, beraz, garantia bat da, pizgarriak Gipuzkoako kudeaketa eta tratamendua hondakinen hierarkiako goiko alderantz mugiarazteko izango direlako garantia bat, alegia.

Geroago, 5.1 puntuan, Batzordeak konpromisoa hartzen du, halaber, elikagaietan gertatzen den xahuketa murrizteko, hondakinen prebentzioa landu eta ahalik eta fosforo gehiena berreskuratzearren. Faktore honek inpaktu saihestezina izango du tratatu beharko den materia organiko kantitatean. Aurreko puntuko sorreraren murrizketaren, elikagai xahuketaren prebentzioaren eta krisi ekonomikoaren artean, pentsatzekoa da hondakin sorreran murrizketa bat gertatuko dela.

#### *Batzordeak:*

- *Jarraitu egingo du elikagai-hornikuntzarako katean zehar hondakinak murrizteko modurik onena ebaluatzen, eta aztertu egingo ditu elikagai produkzio eta kontsumorako jarraibideek ingurumenean duten eragina murrizteko formulak (Elikadura iraunkorrari buruzko komunikazioa, hemendik 2013ra).*
- *Metodologia bat garatuko du, funtsezko eta oinarrizko elikagai-ondasunei buruzko iraunkortasun irizpideak ezartzeko (hemendik 2014ra).*
- *Fosforo-hornikuntzaren segurtasuna eta horren erabilera iraunkorrerako neurri potentzialak ebaluatzen jarraituko du (Fosforoaren erabilera iraunkorrari buruzko Liburu Berdea, hemendik 2012ra).*

#### *Estatu kideei eskatzen zaie:*

- *Elikagai xahuketaren arazoari heltzea, hondakin prebentziorako bere programa estataletan (2013).*

Legegintzako berrikuntzak laburtuz, 2008+4 Aurrerapen Dokumentuaren garapenak, hainbat gauza aurreikusi behar ditu, honakoak:

- balorizazio materialaren maila altuak; materialen berreskurapenean % 50eko tasa bat bermatzeko, gutxienez % 60 – 65 lortu behar da gaikako bilketan, eta, Europako esperientziek erakusten dutenaren arabera, hori lortzeko modu bakarra atez ateko bilketa sistema bat inplementatzea da.
- eginkizun funtsezkoa materia organikoaren gaikako bilketarentzat, mantenugaiak lurretara itzultzea ahalbidetzen duen trataera egoki bati loturik.
- hondakin kantitateak murrizteko joera; honek epe luzera begira bideraezin bihurtzen du funtzionatu ahal izateko hondakin-hornidura etengabea behar duen makineria oro.
- zabortegeiak modu progresibo batean ixtea eta erraustearen desegokitasuna.
- prebentzio planak, bai hondakin sorrera bai gaikako bilketaren ondoren gainerako zatikia murriztera bideratuak.

### 3 HIRI HONDAKINEN PARAMETRO NAGUSIEN BILAKAERA 2008-2012 EPEAN ZEHAR

#### 3.1. BIZTANLERIAREN BILAKAERA


2008 – 2011 epean zehar, biztanleriak % 0,3 -8.611 biztanle- egin du gora urtean Gipuzkoako lurralde osoan.

6. taula. Gipuzkoako biztanleriaren bilakaera 2008 - 2011 epean, eta Aurrerapen Dokumentuko prognosiarekiko alderaketa. Iturria. Mankomunitateak eta 2008 – 2016Aurrerapen Dokumentua

	2008	2009	2010	2011
<b>TXINGUDI</b>	77.229	77.409	77.402	77.505
<b>SAN MARKO</b>	307.920	309.814	310.446	311.613
<b>TOLOSALDEA</b>	59.136	59.815	60.040	60.266
<b>SASIETA</b>	68.664	69.184	69.444	69.605
<b>DEBAGOIENA</b>	61.711	61.922	61.862	61.915
<b>DEBABARRENA*</b>	72.260	72.312	72.529	72.657
<b>UROLA ERDIA</b>	30.623	31.107	31.238	31.478
<b>UROLA KOSTA</b>	40.981	41.524	41.824	42.096
<b>GUZTIRA</b>	<b>718.524</b>	<b>723.087</b>	<b>724.785</b>	<b>727.135</b>
<b>Aurrerapen Dokumentuko prognosia.</b>	<b>713.315</b>	<b>715.301</b>	<b>717.292</b>	<b>719.288</b>

\* Mallabia eta Ermua barne

3. irud.: Gipuzkoako biztanleriaren bilakaera 2008 - 2011 epean, eta Aurrerapen Dokumentuko prognosiarekiko alderaketa. Iturria. Mankomunitateak eta 2008 – 2016Aurrerapen Dokumentua




Migrazio fenomenoari lotutako biztanleriaren hazkundera jaso zuen prognosian Aurrerapen Dokumentuak, eta gaurkotu egin zituen, horrenbestez, GHHKPOren aurreikuspenak, honek biztanleriaren jaitsiera txiki bat aurreikusten baitzuen. 2011rako 719.288 pertsonako biztanleria aurreikusten zuen, batez beste % 0,21eko hazkundera batez urtean. Egungo errealitateak gainditu egin du kopuru hori, biztanleria dagoeneko 727.135 pertsonakoa baita.

Mankomunitate mailan, oso portaera desberdinak ikusten dira hazkundera demografikoari dagokionez, eta hau funtsezko alderdi bat da datozen lau urteetara begirako sorrera aurreikuspenak egiteko.

**7. taula.** Biztanleriaren urte arteko hazkundea 2008 - 2011 epean, eta Aurrerapen Dokumentuko prognosiarekiko alderaketa. Iturria. Mankomunitateak eta 2008 - 2016 Aurrerapen Dokumentua

	08/11 EPEKO		
	2008	2011	URTEARTEKO BATEZ BESTEKO ALDEA
<b>TXINGUDI</b>	77.229	77.505	% 0,09
<b>SAN MARKO</b>	307.920	311.613	% 0,30
<b>TOLOSALDEA</b>	59.136	60.266	% 0,48
<b>SASIETA</b>	68.664	69.605	% 0,34
<b>DEBAGOIENA</b>	61.711	61.915	% 0,08
<b>DEBABARRENA</b>	72.260	72.657	% 0,14
<b>UROLA ERDIA</b>	30.623	31.478	% 0,70
<b>UROLA KOSTA</b>	40.981	42.096	% 0,68
<b>GUZTIRA</b>	<b>718.524</b>	<b>727.135</b>	<b>% 0,30</b>
<b>Aurrerapen Dokumentuko prognosia.</b>	<b>713.315</b>	<b>719.288</b>	<b>% 0,21</b>

**4. irud.:** Biztanleriaren urte arteko hazkundea 2008 - 2011 epean, eta Aurrerapen Dokumentuko prognosiarekiko alderaketa. Iturria. Mankomunitateak eta 2008 - 2016 Aurrerapen Dokumentua




Azkenik, kontuan hartu behar da biztanleria, nagusiki, Txingudi eta San Marko inguruetan biltzen dela, biztanleria guztiaren % 54 hartzen baitute horiek.



**8. taula. Gipuzkoako mankomunitateek biztanleria mailan duten pisu erlatiboa 2011n.**  
Iturria. Mankomunitateak

	Biz.	%
<b>TXINGUDI</b>	77.505	% 11
<b>SAN MARKO</b>	311.613	% 43
<b>TOLOSALDEA</b>	60.266	% 8
<b>SASIETA</b>	69.605	% 10
<b>DEBAGOIENA</b>	61.915	% 9
<b>DEBABARRENA</b>	72.657	% 10
<b>UROLA ERDIA</b>	31.478	% 4
<b>UROLA KOSTA</b>	42.096	% 6
<b>GUZTIRA</b>	<b>727.135</b>	<b>% 100</b>

**5. irud.: Gipuzkoako mankomunitateek biztanleria mailan duten pisu erlatiboa 2011n.**  
Iturria. Mankomunitateak



Demografiako datu guztiek aukera emango dute 2008 – 2016 Aurrerapen Dokumentua egungo errealitatera egokitze eta Gipuzkoako biztanleriak 2012 – 2016 epean izango dituen hazkunderako aurreikuspenak birdefinitzeko. Eta horren guztiaren bidetik, ondoren aztertzen diren alderdiekin bat doitu ahal izango dira hondakin sorrerari buruzko aurreikuspenak.

### 3.2. – HH (-)en SORRERAREN BILAKAERA

Kudeaketa publikoko hiri hondakinen sorrerak beharrezko joera bat erakusten du azken lau urteotan. Sorreraren jaitsiera egoera hau dela eta, berrikusi egin behar dira 2008 – 2016 Aurrerapen Dokumentuaren aurreikuspenak, eredu egungo behar eta joeretara egokitzearren.


Kontuan hartu behar da ezen dokumentu honetan aldaketa bat sartu dela 2008 – 2016 Aurrerapen Dokumentuan aztertutako datuekiko, ez baitira kontuan hartu kudeaketa pribatuko IMEHAK. Izan ere, datu horiek kontuan hartuz gero distortsio bat sortzen da, gaikako bilketaren emaitzei eta aurreikusitako helburuei dagokienez. Gainera, hondakin horiek ez dira inoiz sartzen kudeaketa publikoko zirkuituan. Beraz, horiek kontabilizatzeak akatsak sorraraz ditzake, kasuan kasuko frakzio edo zatikiaren trataera beharretarako aurreikuspenak egiteko unean.

9. taula. Hondakin sorreraren eta pertsonako sorreraren bilakaera Gipuzkoan 2008 - 2011 epean, eta 2008 - 2016 Aurrerapen Dokumentuko aurreikuspenarekiko alderaketa.  
Iturria: Geuk egina, mankomunitateek eta 2008 - 2016 Aurrerapen Dokumentuak emandako datuetatik abiatuta

	2008	2009	2010	2011
HH (-) sorrera	350.840,70	341.426,65	338.801,94	334.417,78
<b>HONDAKINAK</b>				
PERTSONAKO (kg/urte)	488,28	472,18	467,45	459,91
<b>Aurrerapen Dokumentuaren aurreikuspena</b>				
HH (-) SORRERA	371.256,04	374.907,05	378.631,13	381.472,86
<b>HONDAKINAK</b>				
PERTSONAKO (kg/urte)	520,47	524,12	527,86	530,35

Aurreko taulak urteko jaitsiera bat erakusten du hondakinen sorreran, % 1,58koa zehazki urtean. Per capita edo pertsonako sorreraren jaitsierak ematen digu jaitsieraren zergatia.

6. irud.: Pertsonako sorreraren bilakaera Gipuzkoan 2008 - 2011 epean, eta 2008 - 2016 Aurrerapen Dokumentuko aurreikuspenarekiko alderaketa.  
Iturria: Geuk egina, mankomunitateek eta 2008 - 2016 Aurrerapen Dokumentuak emandako datuetatik abiatuta




Hondakinen pertsonako sorrerak izan duen murrizketari gehitu egin behar zaio azken bi urtean gaikako bilketak izan duen gorakada, bilketarako zatiki berriak eta emaitza hobek ematen dituzten eredu berriak ezartzean etorri baita hori.

Garrantzitsua da azpimarratzea ezen hondakin sorreraren jaitsiera areagotu egiten dela etxeko hondakinen kasuan, azken lau urtean % 1,72koa izan baita urtearteko batez besteko jaitsiera hori; kudeaketa publikoko IMEHAetan ere ikusten da beheranzko bidea, urtearteko % 0,21eko jaitsieraz batez beste.

**10. taula. Hondakin sorreraren bilakaera Gipuzkoan 2008 - 2011 epean.**  
Iturria. Mankomunitateak


	2008		2009		2010		2011	
	t/urte	%	t/urte	%	t/urte	%	t/urte	%
<b>ETXEKO HONDAKINEN</b>								
<b>GAIKAKO BILKETA</b>	78.000,26	% 22	81.496,37	% 24	87.477,57	% 26	85.463,29	% 26
<b>GAIKAKO BILKETAKO</b>								
<b>IMEHAK</b>	25.774,27	% 7	21.815,34	% 6	19.957,96	% 6	23.290,02	% 7
<b>GAIKAKO BILKETA GUZTIRA</b>	<b>103.774,53</b>	<b>% 30</b>	<b>103.311,71</b>	<b>% 30</b>	<b>107.435,53</b>	<b>% 32</b>	<b>108.753,31</b>	<b>% 33</b>
<b>ETXEKO HONDAKINAK</b>								
<b>ZABORTEGIAN</b>	233.763,61	% 67	224.643,79	% 66	216.166,61	% 64	210.482,05	% 63
<b>IMEHAK ZABORTEGIAN</b>	13.302,55	% 4	13.471,24	% 4	15.199,80	% 4	15.182,42	% 5
<b>ZABORTEGIAN GUZTIRA</b>	<b>247.066,17</b>	<b>% 70</b>	<b>238.115,03</b>	<b>% 70</b>	<b>231.366,42</b>	<b>% 68</b>	<b>225.664,47</b>	<b>% 67</b>
<b>HH (-) GUZTIRA</b>	<b>350.840,70</b>		<b>341.426,74</b>		<b>338.801,94</b>		<b>334.417,78</b>	

**7. irud.:** Gaikako bilketaren bilakaera Gipuzkoan 2008 - 2011 epean.  
Iturria. Mankomunitateak



Garrantzitsua da kontuan hartzea Aurrerapen Dokumentuak ez zuela igoera mamizkorik aurreikusten gaikako bilketari dagokionez, zeren eta 2008ko mailetan mantentzen zituen kudeaketa publikoko hiri hondakinen gaikako bilketarako helburuak, hobekuntza helburu berririk finkatzeke. Aurrerapen Dokumentuak gaikako bilketari dagokionez 2016rako aurreikusitako % 60rainoko igoera, funtsean, bilketa datu orokorretan kudeaketa pribatuko IMEHAK sartzetik zetorren.

**8. irud.: Gaikako bilketaren emaitzak 2011n.**  
Iturria. Mankomunitateak



2008+4 Aurrerapen Dokumentua garatzean, etxeko hondakinen eta kudeaketa publikoko IMEHAen gaikako bilketarako helburu asmo handiagokoak finkatuko dira, hain zuzen 2016an % 60ko mailara iristearren hondakin mota honen gaikako bilketari dagokionez.

Ondoren, hondakin sorreraren bilakaera zehazten da, sortzaile motaren eta zatikien arabera.

**11. taula. Hondakin sorreraren bilakaera zehaztua Gipuzkoan 2008 - 2011 epean.**  
Iturria. Mankomunitateak

	2008	2009	2010	2011
<b>ETXEKO HONDAKINAK (EH)</b>				
<b>BIOHONDAKINA</b>				
Organiko hartzigarria Atez atekoa	0,00	373,90	2.263,26	3.233,58
Organiko hartzigarria 5. edukiontzia	290,44	824,46	1.609,03	2.366,46
<b>ETXEKO MATERIA ORGANIKOA GUZTIRA</b>	<b>290,44</b>	<b>1.198,36</b>	<b>3.872,29</b>	<b>5.600,04</b>
Inausketa hondarrak (adarrak, zuhamuxkak)	2.833,40	4.208,54	1.976,19	2.695,21
Lorazaintzako inausketa garbigunean (sasiak, zuhaitzak...)	0,00	222,82	1.324,73	0,00
<b>INAUSKETAKO HONDAKINAK GUZTIRA</b>	<b>2.833,40</b>	<b>4.431,36</b>	<b>3.300,92</b>	<b>2.695,21</b>
Lorazaintzako inausketa, hondarrik gabea (belarra, loreak, orbela...)	1.111,14	955,72	2.206,23	1.226,18
Belarra, orbela... garbigunean	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>HONDARRIK GABEKO INAUSKETA GUZTIRA</b>	<b>1.111,14</b>	<b>955,72</b>	<b>2.206,23</b>	<b>1.226,18</b>

	2008	2009	2010	2011
<b>INAUSKETA ETA LOREZAINZA GUZTIRA</b>	<b>3.944,54</b>	<b>5.387,08</b>	<b>5.507,15</b>	<b>3.921,39</b>
<b>BIOHONDAKINA GUZTIRA</b>	<b>4.234,98</b>	<b>6.585,43</b>	<b>9.379,44</b>	<b>9.521,43</b>
<b>PAPERA-KARTOIA</b>				
<i>Atez ateko bilketa - Herritarrek+komertzioak</i>	0,00	189,14	1.246,82	1.673,73
<i>Kaleetako edukiontziak</i>	28.087,49	27.889,69	26.534,49	25.712,73
<i>Ekarpen zonetan (kartoi komertziala edukiontziaren ondoan)</i>	1.789,76	9,32	3.632,75	578,64
<i>Papera-kartoa garbigunean</i>	550,10	488,05	492,28	571,44
<b>JASOTAKO PAPER-KARTOIA</b>	<b>30.427,35</b>	<b>28.576,20</b>	<b>31.906,34</b>	<b>28.536,55</b>
<b>ONTZI ARINAK</b>				
<i>Atez ate bildua</i>	0,00	116,77	722,87	1.043,81
<i>Kaleko ontzietan bildua</i>	9.533,22	10.257,51	10.299,50	10.914,56
<i>Garbiguneetan bildua</i>	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>ONTZI ARINAK GUZTIRA</b>	<b>9.533,22</b>	<b>10.374,28</b>	<b>11.022,37</b>	<b>11.958,37</b>
<b>BEIRA</b>				
<i>Kaleko ontzietan</i>	21.011,99	21.511,54	21.424,91	21.394,45
<i>Beira garbigunean</i>	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>BEIRA GUZTIRA</b>	<b>21.011,99</b>	<b>21.511,54</b>	<b>21.424,91</b>	<b>21.394,45</b>
<b>BEIRA LAUA GARBIGUNEETAN</b>	<b>180,67</b>	<b>174,72</b>	<b>232,44</b>	<b>236,56</b>
<b>NEURRI HANDIKO BERRESKURATUAK</b>				
<i>Neurri handiko berreskuratuak</i>	6.455,64	6.483,63	5.920,07	5.696,14
<i>Neurri handikoak garbigunean</i>	393,74	0,00	110,08	10,40
<b>NEURRI HANDIKO BERRESKURATUAK GUZTIRA</b>	<b>6.849,37</b>	<b>6.483,63</b>	<b>6.030,14</b>	<b>5.706,54</b>
<b>ZURA</b>				
<i>Zura garbigunean</i>	1.523,11	2.931,48	2.431,80	2.734,57
<i>Hondartzetako egurra</i>	70,10	0,00	38,12	125,18
<b>ZURA GUZTIRA</b>	<b>1.593,21</b>	<b>2.931,48</b>	<b>2.469,92</b>	<b>2.859,75</b>
<b>ARROPA</b>				
<i>Arropa, ARROPA ETA OIHALETARAKO edukiontzietan</i>	2.099,92	2.303,55	2.336,40	2.313,11
<i>Arropa garbigunean</i>	0,00	0,00	0,00	1,05
<b>ARROPA GUZTIRA</b>	<b>2.099,92</b>	<b>2.303,55</b>	<b>2.336,40</b>	<b>2.314,16</b>
<b>OLIOA</b>				
<i>Etxeko olioaren bilketa</i>	201,42	142,11	336,68	532,64
<i>Etxeko olio, puntu mugikorrean bildua</i>	0,00	80,49	94,52	53,62
<i>Etxeko olio garbigunean</i>	0,00	0,00	0,00	0,00
<i>Olio minerala garbigunean (motorreko olio)</i>	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>OLIOA GUZTIRA</b>	<b>201,42</b>	<b>222,60</b>	<b>431,20</b>	<b>586,25</b>
<b>PILAK</b>				
<i>Pilak kaleko edukiontzietan eta dendetan (atez ate)</i>	79,77	69,67	60,91	81,23
<i>Pilak eta bateriak garbigunean</i>	14,53	15,06	24,45	20,73
<i>Saltokietan bilduak</i>	0,00	0,09	0,00	0,00
<b>PILAK GUZTIRA</b>	<b>94,30</b>	<b>84,82</b>	<b>85,36</b>	<b>101,96</b>
<b>TRESNA ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOAK (TEE)</b>				
<i>TEEH zuriak garbigunean</i>	222,33	337,26	681,17	683,85
<i>TEEH marroiak garbigunean</i>	231,52	733,79	476,44	425,27
<i>TEEH garbigunean (lanparak, fluoreszenteak...)</i>	74,33	24,25	3,95	4,77
<b>TEEH GUZTIRA</b>	<b>528,18</b>	<b>1.095,30</b>	<b>1.161,56</b>	<b>1.113,89</b>
<b>ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUAK</b>				

	2008	2009	2010	2011
<i>Etxeko hondakinak garbigunean (bernizak, pinturak, disolbatzaileak)</i>	109,89	77,19	77,82	128,27
<i>Hondakin arriskutsuak puntu mugikorretan</i>	1,72	23,95	23,36	27,94
<b>EHA GUZTIRA</b>	<b>111,60</b>	<b>101,14</b>	<b>101,18</b>	<b>156,21</b>
<b>PLASTIKOA</b>				
<i>Film-plastikoa garbigunean</i>	0,00	0,00	242,16	0,00
<i>Garbiguneko plastiko gogorra eta beste plastiko berrerabilgarri batzuk</i>	231,62	289,67	1,58	278,95
<b>PLASTIKOA GUZTIRA</b>	<b>231,62</b>	<b>289,67</b>	<b>243,74</b>	<b>278,95</b>
<b>TXATARRA</b>				
<i>Udal brigada eta antzekoak</i>	18,66	0,00	0,00	4,52
<i>Metalak garbigunean</i>	864,76	711,43	617,13	489,79
<i>Aluminioa garbigunean</i>	0,00	0,00	0,00	0,00
<i>Antzeko metalak garbigunean</i>	0,00	18,74	0,00	84,48
<b>TXATARRA GUZTIRA</b>	<b>883,42</b>	<b>730,17</b>	<b>617,13</b>	<b>578,79</b>
<b>PORESPANA</b>				
<i>Porespan bildua</i>	0,00	0,00	0,00	0,92
<i>Porespana garbigunean</i>	0,00	0,00	1,68	6,61
<b>PORESPANA GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>1,68</b>	<b>7,53</b>
<b>GURPILAK</b>				
<i>Garbigunean bilduak</i>	19,01	31,85	33,77	111,91
<i>Kalean bilduak</i>	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>GURPILAK GUZTIRA</b>	<b>19,01</b>	<b>31,85</b>	<b>33,77</b>	<b>111,91</b>
<b>GAIKAKO BILKETA GUZTIRA</b>	<b>78.000,26</b>	<b>81.496,37</b>	<b>87.477,57</b>	<b>85.463,29</b>
<b>GAINERAKOA</b>				
<i>Herritarrei gainerakoa biltzea (Atez ate)</i>	0,00	171,28	867,53	1.352,05
<i>Kaleko edukiontzietatik edo inguruetatik bildua (ez gaika)</i>	221.257,17	216.419,08	204.798,12	198.665,16
<i>Landa inguruetako edukiontzietan bildua</i>	2.025,08	991,36	860,86	865,46
<i>Kaleko garbiketan bildua</i>	3.898,94	3.421,32	3.518,23	4.220,48
<i>Udal brigadek sortua</i>	778,16	66,10	936,39	208,24
<i>Hondartza, erreka eta atsedeen guneeetan bildutako gainerakoa</i>	2.416,16	1.789,51	1.767,49	828,04
<i>Gainerako geldo edo ez arriskutsua garbigunean zabortegirako</i>	399,48	477,50	0,00	888,66
<i>Kontrolik gabe isuritako gainerakoa (landa inguruetan, polígonoetan)</i>	0,00	0,00	0,00	0,00
<i>Ezohiko hondakinak (istripuak, haizeteak)</i>	0,00	0,00	0,00	68,98
<i>Neurri handiko ez berreskuratua</i>	2.988,63	1.307,64	3.211,85	3.384,99
<i>Obra-hondakin ez berreskuratua edo obra-hondakin nahastua</i>	0,00	0,00	206,16	0,00
<b>GAINERAKOA GUZTIRA</b>	<b>233.763,61</b>	<b>224.643,79</b>	<b>216.166,61</b>	<b>210.482,05</b>
<b>EHak GUZTIRA</b>	<b>311.763,87</b>	<b>306.140,16</b>	<b>303.644,18</b>	<b>295.945,34</b>

	2008	2009	2010	2011
<b>KUDEAKETA PUBLIKOKO IMEHAK</b>				
<b>BIOHONDAKINA</b>				
<i>Organiko hartzigarria sortzaile handiak</i>	92,23	677,54	592,30	353,72
<i>Organiko hartzigarria poligonoetan</i>	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>BIOHONDAKINA GUZTIRA</b>	<b>92,23</b>	<b>677,54</b>	<b>592,30</b>	<b>353,72</b>
<b>PAPERA-KARTOIA</b>				
<i>Atez ateko bilketa komertzioetan</i>	7.667,78	6.169,65	2.598,31	6.920,53
<i>Atez ateko bilketa administrazioan eta ikastetxeetan</i>	0,00	598,49	1.014,43	1.049,70
<i>Sortzaile handietan atez ate</i>	5.371,50	3.955,14	4.277,06	2.686,23
<b>JASOTAKO PAPER-KARTOIA</b>	<b>13.039,28</b>	<b>10.723,28</b>	<b>7.889,80</b>	<b>10.656,45</b>
<b>ONTZI ARINAK</b>				
<i>Sortzaile handietan bildua</i>	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>ONTZI ARINAK GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>BEIRA</b>				
<i>Atez ateko bilketa komertzioetan</i>	1.572,16	1.601,12	1.653,75	1.672,39
<b>BEIRA GUZTIRA</b>	<b>1.572,16</b>	<b>1.601,12</b>	<b>1.653,75</b>	<b>1.672,39</b>
<b>ZURA</b>				
<i>Tratatu gabeko zur bilketa poligonoetan</i>	10.692,44	2.230,76	6.162,38	7.387,82
<i>Tratatu gabeko zuraren edo zur nahastuaren bilketa poligonoetan</i>	135,52	6.582,63	3.596,51	2.999,24
<i>Merkatu edo ferietako zura</i>	17,50	0,00	25,50	23,20
<b>ZURA GUZTIRA</b>	<b>10.845,46</b>	<b>8.813,39</b>	<b>9.784,39</b>	<b>10.410,26</b>
<b>PLASTIKOA</b>				
<i>Film-plastikoa poligonoetan</i>	0,00	0,00	3,30	37,30
<i>Plastiko gogorra eta nahastuak poligonoetan</i>	225,16	0,00	34,43	159,90
<b>PLASTIKOA GUZTIRA</b>	<b>225,16</b>	<b>0,00</b>	<b>37,73</b>	<b>197,20</b>
<b>GAIKAKO BILKETA GUZTIRA</b>	<b>25.774,27</b>	<b>21.815,34</b>	<b>19.957,96</b>	<b>23.290,02</b>
<b>GAINERAKOA</b>				
<i>Komertzio edo poligonoetan atez ate bildutako gainerakoa</i>	1.975,24	2.486,31	2.663,08	1.069,10
<i>Merkatu eta ferietan bildutako gainerakoa</i>	1.548,22	1.289,62	1.368,36	1.995,70
<i>Sortzaile handiek zuzenean zabortegira bidalitako gainerakoa</i>	3.144,85	501,70	5.044,27	6.135,12
<i>Poligonoetan atez ate bildutako gainerako geldo edo ez arriskutsua</i>	6.634,25	9.193,61	6.124,09	5.982,50
<b>GAINERAKOA GUZTIRA</b>	<b>13.302,55</b>	<b>13.471,24</b>	<b>15.199,80</b>	<b>15.182,42</b>
<b>IMEHA guztira</b>	<b>39.076,83</b>	<b>35.286,58</b>	<b>35.157,76</b>	<b>38.472,44</b>
<b>HH (-) GUZTIRA</b>	<b>350.840,70</b>	<b>341.426,74</b>	<b>338.801,94</b>	<b>334.417,78</b>

Hondakin sorreraren bilakaeraren analitik abiatuta, eta kontuan harturik lehenago aztertutako alderdi demografikoak, datozen lau urteetarako sorreraren aurreikuspena garatuko da, egungo joerari egokituta.

**12. taula. Hondakin sorreraren bilakaeraren laburpena sortzaile motaren arabera**  
Iturria: Geuk egina

	2008	2009	2010	2011
<b>ETXEKO HONDAKINEN BILAKAERA</b>				
(t/urte)	311.763,87	306.140,16	303.644,18	295.945,34
<b>URTEKO ALDAKETA TASA</b>		- % 1,8	- % 0,8	- %2,5
<b>URTE ARTEKO ALDAKETA TASA</b>		- % 1,72		
<b>IMEHAen BILAKAERA (t/urte)</b>	39.076,83	35.286,58	35.157,76	38.472,44
<b>URTEKO ALDAKETA TASA</b>		- % 9,7	- % 0,4	% 9,4
<b>URTE ARTEKO ALDAKETA TASA</b>		- % 0,21		
<b>HH (-)en BILAKAERA (t/urte)</b>	350.840,70	341.426,74	338.801,94	334.417,78
<b>URTEKO ALDAKETA TASA</b>		- % 1,58	- % 0,8	- % 1,3
<b>URTE ARTEKO ALDAKETA TASA</b>		- % 1,58		




## 4 HONDAKINEN TRATAMENDUA. EGUNGO EGOERA ETA AZPIEGITURA ETA ZABORTEGIEN AHALMENA

### 4.1. MATERIA ORGANIKO KONPOSTAGARRIA TRATATZEKO PLANTAK ETA EGUNGO AHALMENA

Gaur egun Gipuzkoak konpostatze-planta bat dauka Lapatxen, Azpeitian. Horren ahalmen errealak urtean gehienez 2.100-2.500 tona MOK trata ditzake modu integralean.

MOK bilketa 5.953,76 tonakoa izan zen 2011ko urtean, eta Lapatxeko konpostatze-plantarako landare-zatiki edo frakzioa 1.859,28 tonara iritsi zen. Zati organikoaren gaikako bilketaren joera goranzkoa da, urtero, joera nabarmena gainera, zatiki hau biltzeko ezarpen berriak eta jasotze-emaitzak maximizatzen dituzten atez ateko bilketa sistemak ezartzearen ondorioz.


9. irud.: MOKaren gaikako bilketaren bilakaera 2008 – 2016 epean.  
Iturria. Mankomunitateak



Gaur egun, Lapatxeko konpostatze-plantak ez du Gipuzkoan gaika biltzen den MOK guztia tratatzeko ahalmenik. Egungo tratamendu-defizita 3.453,76 tonakoa da, urtean; hau da, sortzen den guztiaren % 60koa ia-ia.

Gauzak horrela, are MOKaren gaikako bilketa goranzko joeran dagoela, lehenetasunezkoa da zatiki hau tratatzeko ahalmena. Ildo horretatik, premiazkoa da egun biltzen den MOKa tratatzeko ahalmena duten instalazioak planifikatzea, bide batez etorkizuneko gorakadek eskatuko duten trataera ahalmena bermatzearen.

**10 irud.:** MOKa tratatzeko egungo plantak eta ahalmena  
Iturria: Geuk egina




#### 4.2. ONTZI ARINAK TRATATZEKO PLANTAK ETA EGUNGO AHALMENA


Gaur egun Gipuzkoak ontzi arinak aukeratzeko bi planta ditu, Urnietan bata eta Legazpin bestea. Urnietako plantak San Marko eta Txingudi mankomunitateetako ontziak tratatzen ditu, eta beste mankomunitateetan bildua Legazpiko plantan tratatzen da. 2011n tratatutako kopurua 11.958,37 tonakoa izan zen guztira; horietatik 7.488 tona Urnietan tratatu ziren, eta 4.470 tona Legazpin. Planta horiek trataera ahalmena handitzeko aukera izango balukete ere txanda kopurua igoz eta inbertsio berriak eginez, planten beren muga fisikoek -harrera-gune txikiegiak, pabilioien mugak, etab.- beharrezko egiten dute zatiki honetarako instalazio berriren bat aurreikustea.

Ontzi arinen bilketa 11.958,37 tonara iritsi zen 2011ko urtean, eta ontzi arinen gaikako bilketaren bilakaerak goranzko joera garbia erakusten du azken lau urtean zehar. Ildo honetatik, ikusten da atez ateko bilketa sistemak ezartzeak igoera bat eragiten duela, eta kasu horietan bikoiztu egiten da bildutako ontzi arinen kopurua.

**11. irud.:** Ontzi arinen gaikako bilketaren bilakaera 2008 – 2016 epean.  
Iturria: Mankomunitateak



**12. irud.:** Ontzi arinak tratatzeko egungo plantak eta ahalmena  
Iturria: Geuk egina



### 4.3. AZPIEGITURAKETA GAINERAKO ZATIKIA TRATAMENDURIK GABE BOTATZEKO EGUNGO AHALMENA

Gainerako zatikia, gaur egun, zuzenean botatzen da, aurrez inolako tratamendurik hartzeke. Hondakin mota honen, hondakin primarioen, isurketak ingurumen inpaktu ugari eragiten ditu, batez ere material biodegradagarrietan duen maila altuagatik.

Gaur egun Gipuzkoan titularitate publikoko 3 zabortege daude, eta gehienezko isurketa ahalmena 680.356 tonakoa da guztira, 2009ko urtean sinatutako Handitze Hitzarmenak zehazten duenaren arabera. Hitzarmen horretan finkatzen ziren Gipuzkoako zabortege bakoitzerako isurketa-mugak.


**13. taula. Isurketa-mugak (tonak guztira) Gipuzkoako zabortegetan**  
Iturria. 2009ko Handitze Hitzarmena

ZABORTEGIA	SASIETA	URTETA	LAPATX
Handitze Hitzarmeneko mugak (2009)	324.000 t	486.000 t	375.000 t

Hitzarmenean ezarritako datu hauek kontserbadoreak dira, zuhurtziaren bidetik joz emanak, eta zabortege horiek benetan dituzten ahalmenen azpitik daude nabarmen, mankomunitateek egindako azken azterketetatik eta kubikatzeetatik ondorioztatzen denaren arabera.

Gainerako zatikiaren bilketa, 2011ko urtean, 225.664,47 tonako kopururaino murriztu zen, beheranzko joera garbi batez. Datu horren argitan, birplanteatu egin behar dira 2008-2016 Aurrerapen Dokumentuan zatiki hori tratatzeko proposatutako instalazioak.


**13. irud. Gainerako zatikiaren bilketaren bilakaera 2008 - 2016 epean.**  
Iturria. Mankomunitateak



Segidan, gainerako zatikiaren gaur egungo fluxuak zehazten dira.


14. irud..

Gainerako zatikiaren fluxuen mapa, 2011  
Iturria: Geuk egina



Gaur egun dispertsio handia dago gainerako zatikian. Txingudi y San Markok gainerak zatiak bidaltzen dituzte Gipuzkoako hiru zabortegietara. Honetaz gainera, esportazioa dago zatiki honetan: gaur egun 23.000 tona esportatzen dira, gainerako zatikian, Bizkaira; egoera hau aldatuko den prebisioa dago, eta horrek presioa erantsiko die gaurko zabortegiei.

**15. irud.: Egungo zaborteziak eta isurketa-mugak**  
Iturria: Geuk egina



## 5 SORRERA PROGNOZIA GAURKOTZEA ETA GHHPOREN HELBURUAK EGOKITZEA

### 5.1. HIRI HONDAKINEN 2008 – 2016ko SORRERA PROGNOZIA GAURKOTZEKO PARAMETROAK

Sorrera prognosia gaurkotzeak aukera emango du gaikako bilketaren mailan finkatutako helburuak eguneratzeko eta zatiki edo frakzio bakoitzaren trataera beharrak 2016ko urterako birdimentsionatzeko.

Sorrera eta gaikako bilketaren aurreikuspenak egiteko, hainbat aldagai hartu dira kontuan, honakoak:

- **HAZKUNDE DEMOGRAFIKOA.** Mankomunitate bakoitzerako hazkunde demografiko espezifikoaren aurreikuspena hartu da kontuan, aurreikuspenak lurralde bakoitzeko errealitate demografikora egokitzearen.

14. taula. Urte arteko hazkunde demografikoa mankomunitateka  
Iturria: Geuk egina

	SAN						UROLA	
	TXINGUDI	MARKO	TOLOSALDEA	SASIETA	DEBAGOIENA	DEBABARRENA	ERDIA	UROLA KOSTA
<b>URTEKO BATEZ</b>								
<b>BESTEKO</b>								
<b>HAZKUNDEA</b>	% 0,06	% 0,29	% 0,38	% 0,30	- % 0,01	% 0,24	% 0,60	% 0,69

- **HONDAKIN SORRERA.** Hondakin sorrerak, Gipuzkoan, jaitsiera etengabea izan du azken lau urtean, eta horrek bere isla izan behar du 2016ko urteko aurreikuspenetarako. Hauxe da kontuan hartu behar den alderdirik garrantzitsuenetako bat, zeren eta Aurrerapen Dokumentuak urteko igoera bat aurreikusten baitzuen. Hondakin sorreraren aurreikuspenean urtean - % 1 aurreikusi da, hondakin prebentziorako politiketara loturik. Kopuru horren oinarrian prebentzio hipotesi ezkor edo pesimistak daude, eta horrenbestez gutxieneko helburutzat ezartzen da.

Eta gainera mantendu egin da etxeko hondakin -% 82- eta IMEHAREN -% 18- arteko proportzioa. IMEHAK sortutako hondakin kopuru osoaren % 15 eta 30 bitartean egiten du. Beraz, % 18koaren balizkoa tarte normalaren barruan dago.

- **GAIKAKO BILKETA.** Azken urteotan, udalerrri pila handi batek ezarri du MOKaren gaikako bilketa norberak borondatez erabiltzeko edukiontzia bidez, eta beste batzuek atez ateko bilketa jarri dute martxan, % 80 inguruko emaitzak lortuta gaikako bilketan. Atez atekoaren esperientzia eta emaitzak azterturik, udalerrri askok hasi dituzte jada bilketa sistema hori ezartzeko prozesuak. Osterantzean, 500-1000 biztanle bitarteko udalerrri askok interesa adierazi dute, autokonpostatzea edo konpostatze komunitarioa ezartzeko MOKa kudeatzeko bide bakartzat. Aldaketa horiek guztiak direla eta, sorreraren aurreikuspena egin behar da, zatiki edo frakzioa, aurreikusitako gaikako bilketa ereduaren arabera, zatiki bakoitzean aurreikusten diren fluxuak dimentsionatzeko.

**15. taula. Gaikako bilketaren eredu bakoitzarentzat aurreikusitako emaitzak**  
Iturria: Geuk egina

		GAINERAKOA	MOK	BIRZIKLAGARRIAK
ATEZ ATE	<50.000 biz.	% 25	% 25	% 50
	>50.000 biz.	% 35	% 20	% 45
% 36 GUTXIAGO				
AUTOKONPOSTATZEA	SORRERAN	% 37	% 0	% 37
5. EDUKIONTZIA	<50.000 biz.	% 60	% 10	% 30
	>50.000 biz.	% 70	% 5	% 25
EZ UHZO		% 80	% 0	% 20

ETORKIZUNEN ESZENATOKIA		GAINERAKOA	MOK	BIRZIKLAGARRIAK
5. EDUKIONTZIA		% 55	% 15	% 30

## 5.2. HAUTATUTAKO ESZENATOKIA. SORRERA PROGNOZIA ETA GAIKAKO BILKETA

### 5.2.1. HH (-)EN SORRERA PROGNOZIA 2008 - 2020

Hautatutako eszenatokiak kontuan hartzen du HH (-)en urteko sorreran eta gaikako bilketan aurreikusten den bilakaera. Lehenago bilakaera demografikoari eta hondakin sorreraren eta gaikako bilketaren bilakaerari buruz aztertutako aldagaien bilakaera izan da abiapuntua.

Hautatutako eszenatokiak kontuan du, halaber, prebentzio politiken aldeko apustua, 500 eta 1.000 biztanle arteko udalerrietan autokonpostatzea eta konpostatze komunitarioa bultzatzekoa alegia MOKaren kudeaketarako bide bakartzat, eta horrenbestez Europar Batasunak ezarritako helburuak esparru guztietan lortzekoa.


**16 taula. Hautatutako eszenatokia. Gipuzkoako HH (-)en sorrera prognosia gaurkotzea**  
Iturria: Geuk egina

		POPULAZIOA	EHen SORRERA	
		(biz.)	PERTSONAKO	
			(kg/biz/urte)	HH (-) t/urte
	URTEA			
DATU ERREALAK	2008	718.524	488,28	350.840,70
	2009	723.087	472,18	341.426,65
	2010	724.785	467,45	338.801,94
	2011	727.135	459,91	334.417,78
PROGNOSIA	2012	729.171	460,61	334.379,53
	2013	731.213	455,00	331.547,71
	2014	733.260	449,88	329.138,99
	2015	735.313	460,61	327.934,63
	2016	737.372	442,14	327.667,64
	2017	739.437	438,92	326.196,29
	2018	741.507	435,72	324.724,95
	2019	743.583	432,54	323.253,60
	2020	745.665	429,37	321.782,25



Zuhurtziazko sorrera eszenatoki bat hartu da; eszenatoki hori, dena den, nabarmen hobetu liteke prebentzio politiken bidez.

**16. irud.** Hautatutako eszenatokia. Gipuzkoako HH (-)en sorrera prognosia gaurkotzea  
Iturria: Geuk egina




Egungo hondakin sorreraren joerak markatzen duen prognosia 2008 – 2016 Aurrerapen Dokumentuko prognosiarekin alderatzen badugu, ikusten da dokumentu hartan proposatutako plangintza eta eredia gaurkotu beharra dagoela, 2000 – 2006ko epeko goranzko joeran baitzegoen oinarrituta. 2008an hasi zen krisialdi ekonomikoak eragindako aldaketa sozioekonomikoak, azken urteotan garatutako prebentzio politikekin batera, aldaketa bat eragin du paradigman, hiri hondakinen sorrerari dagokionez. Ildo honetatik, 2008 – 2016 Aurrerapen Dokumentuko prognosiaren eta egungo prognosiaren arteko aldea 56.000 tonakoa da, urtean; alde horrek berekin ekarriko luke Aurrerapen Dokumentuak 2008an proposatutako trataera instalazioak gairadimentsionatuta egotea.

**17. taula.** Gipuzkoako HH (-)en sorrera prognosiaren alderaketa, Aurrerapen Dokumentuan eta garapenean.  
Iturria: Geuk egina

	URTEA	HH (-) t/urte	HH (-) t/urte
		EGUNGO PROGNOSIA	Aurrerapen Dokumentuko PROGNOSIA
DATU ERREALAK	2008	350.840,70	371.256,04
	2009	341.426,65	374.907,05
	2010	338.801,94	378.631,13
	2011	334.417,78	381.472,86
PROGNOSIA	2012	334.379,53	383.982,83
	2013	331.547,71	385.533,81
	2014	329.138,99	386.207,21
	2015	327.934,63	385.205,14
	2016	327.667,64	383.446,32
	2017	326.196,29	
	2018	324.724,95	
	2019	323.253,60	
	2020	321.782,25	

**17. irud.** Gipuzkoako HH (-)en sorrera prognosien, Aurrerapen Dokumentukoaren eta egungo aurreikuspenekoaren, alderaketa.  
Iturria: Geuk egina



### 5.2.2. HH (-)EN GAIKAKO BILKETAREN PROGNOSIA 2008 - 2020

Hondakin sorrerari dagokionez hautatutako eszenatokiari gehitu egin behar zaio gaikako bilketaren bilakaerari buruzko aurreikuspena, elementu ezinbestekoa baita hondakinen balorizazio material gorena bermatzen duen trataera eredu bat definitzeko.

Gaikako bilketaren emaitzak, gaur egun, sortutako hiri hondakinen guztizkoaren % 32ko portzentajejan daude. Gaikako bilketaren helburuak % 60koak dira 2016rako, eta % 75ekoak 2020rako, europar herrialde gehienetako mailetara iristearren horrela. Honek zera eskatzen du, kudeaketarako bidetzat autokonpostatzea edo konpostatze komunitarioa aukeratzen ez duten Gipuzkoako udalerrri guztietan MOKaren gaikako bilketa ezartzea, eta dagoeneko ezarrita dauden zatiki edo frakzioen bilketaren eraginkortasuna areagotzea, ontzi arinen kasuan batez ere.


**18. taula.** Hautatutako eszenatokia. HH (-)en gaikako bilketaren prognosia Gipuzkoan  
Iturria: Geuk egina

URTEA	MOK	BIRZIKLATZEA	GAINERAKO	
			ZATIKIA	HH (-) GUZTIRA
2008	382,67	103.391,86	247.066,17	350.840,70
2009	1.875,90	101.435,72	238.115,03	341.426,65
2010	4.464,59	102.970,94	231.366,42	338.801,94
2011	5.953,76	102.799,54	225.664,47	334.417,78
2012	8.500,00	107.001,45	218.878,08	334.379,53
2013	33.154,77	109.410,74	188.982,19	331.547,71
2014	39.809,57	112.022,66	177.306,76	329.138,99
2015	52.469,54	114.777,12	160.687,97	327.934,63
2016	61.396,66	123.812,18	142.458,81	327.667,64
2017	65.239,26	130.478,52	130.478,52	326.196,29
2018	71.439,49	146.126,23	107.159,23	324.724,95
2019	77.580,86	151.929,19	93.743,54	323.253,60
2020	83.663,39	160.891,13	77.227,74	321.782,25

19. taula. Hautatutako eszenatokia. Gipuzkoako HO (-)en gaikako bilketaren prognosia makomunitatea.  
Iturria: Geuk egina

TXINGUDI	2016		2020	
	t/año	%	t/año	%
<b>MOK</b>	6.273,28	15%	10.488,77	26%
<b>BIRZIKLAGARRIAK</b>	12.546,55	30%	20.170,72	50%
<b>GAINERAKOA</b>	23.002,01	55%	9.681,94	24%
<b>GUZTIRA</b>	<b>41.821,84</b>		<b>40.341,43</b>	
<b>SAN MARKO</b>				
<b>MOK</b>	25.045,16	18%	36.466,40	26%
<b>BIRZIKLAGARRIAK</b>	50.090,33	35%	70.127,69	50%
<b>GAINERAKOA</b>	67.551,91	47%	33.661,29	24%
<b>GUZTIRA</b>	<b>142.687,40</b>		<b>140.255,38</b>	
<b>TOLOSALDEA</b>				
<b>MOK</b>	5.605,87	21%	6.827,69	26%
<b>BIRZIKLAGARRIAK</b>	11.945,95	45%	13.130,18	50%
<b>GAINERAKOA</b>	8.976,78	34%	6.302,49	24%
<b>GUZTIRA</b>	<b>26.528,60</b>		<b>26.260,36</b>	
<b>SASIETA</b>				
<b>MOK</b>	5.491,28	19%	7.542,93	26%
<b>BIRZIKLAGARRIAK</b>	11.127,92	38%	14.505,63	50%
<b>GAINERAKOA</b>	12.839,62	44%	6.962,70	24%
<b>GUZTIRA</b>	<b>29.458,82</b>		<b>29.011,25</b>	
<b>DEBAGOIENA</b>				
<b>MOK</b>	5.969,67	25%	5.973,70	26%
<b>BIRZIKLAGARRIAK</b>	11.974,83	50%	11.487,89	50%
<b>RESTO</b>	6.010,07	25%	5.514,19	24%
<b>GUZTIRA</b>	<b>23.954,57</b>		<b>22.975,79</b>	
<b>DEBABARRENA</b>				
<b>MOK</b>	4.664,17	17%	6.993,81	26%
<b>BIRZIKLAGARRIAK</b>	9.310,18	34%	13.449,63	50%
<b>GAINERAKOA</b>	13.505,59	49%	6.455,82	24%
<b>GUZTIRA</b>	<b>27.479,94</b>		<b>26.899,26</b>	
<b>UROLA ERDIA</b>				
<b>MOK</b>	3.268,89	25%	3.439,39	26%
<b>BIRZIKLAGARRIAK</b>	6.565,91	50%	6.614,22	50%
<b>GAINERAKOA</b>	3.297,02	25%	3.174,82	24%
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.131,83</b>		<b>13.228,43</b>	
<b>UROLA KOSTA</b>				
<b>MOK</b>	5.078,34	22%	5.930,69	26%
<b>BIRZIKLAGARRIAK</b>	10.250,51	45%	11.405,17	50%
<b>RESTO</b>	7.275,80	32%	5.474,48	24%
<b>GUZTIRA</b>	<b>22.604,65</b>		<b>22.810,34</b>	
<b>GIPUZKOA</b>				
<b>MOK</b>	61.396,66	19%	83.663,39	26%
<b>BIRZIKLAGARRIAK</b>	123.812,18	38%	160.891,13	50%
<b>RESTO</b>	142.458,81	43%	77.227,74	24%
<b>GUZTIRA</b>	<b>327.667,64</b>		<b>321.782,25</b>	

**18. irud. Hautatutako eszenatokia. HH (-)en gaikako bilketaren prognosia Gipuzkoan**  
Iturria: Geuk egina



Bilketak izango dituen emaitzen aurreikuspen eszenatokia faktore garrantzitsua da, zeren eta berak determinatuko baitu zatiki bakoitzaren trataera beharra, proposatutako helburuetara iritsi arteko trantsizio epe horretan zehar. Eta horrek malgutasun maila handiko azpiegiturak eskatzen ditu, hain zuzen % 100 tratatu ahal izateko 2020 urte arteko bilakaera baldintzatzeke.

Hala, 2008 - 2020 epean zehar, urtero-urtero gora egingo dute MOKa eta material birziklagarriak tratatzeko beharrek, eta murriztu egingo dira gainerako zatikia tratatzekoak; honi, izan ere, trataera ez oso eraginkor bat aplikatzen zaio, batez ere zati hori egonkortzearen.

Beraz, gaikako bilketaren bilakaera aurreikusia erabakigarria izango da trataera azpiegiturak planifikatzeko unean.

2016ko urtean, gainerako zatikian 142.459 tona biltzea aurreikusten da. 2008 - 2016 ADk, 2016an, 213.000 tona aurreikusten zituen gainerako zatikiaren bilketarako, eta azpiegiturak aurreikuspen horren arabera dimentsionatzen zituen, HUAko lohi lehortuak erantsiz aurreikuspen horri.

Hondakin sorrera beheranzko joeran dago, eta gaikako bilketa, berriz, goranzkoan. Faktore hau dela eta, aldaketa horiei egokitzen zaizkien ereduak proposatu behar dira. Oso adierazgarria da gainerako zatikiaren trataera beharretarako, 2012an, 207.000 tonako aurreikuspena egitea, eta 77.000 tonakoa, berriz, 2020rako. Hori da joerarik egokiena, gainerako zatikia murriztea ahalbidetzen duena, murrizte hori bultzatzen duen eta zatiki birziklagarriak tratatzea eta balorizatzea bermatzen duen trataera eredu batez. Dokumentu honetan proposatutako eredu eta helburuak logika horren arabekoak dira.

# B ZATIA. 2008 – 2016 EPEAREN ANALISIA

## 6 2008+4 ADGEaren HELBURUAK

### 6.1. PREBENTZIO HELBURUAK 2012 - 2016

- Hondakin sorrera % 4 murriztea 2016an.
- Autokonpostatze eta konpostatze komunitarioa ezartzea 1.000 biztanletik beherako udalerrietan, kudeaketarako bide bakartzat.
- Jarraipen sistema espezifiko bat ezartzea autokonpostatze eta konpostatze komunitariorako, prozesuaren kudeaketa egokia bermatzeko.
- Hondakinen prebentziorako estrategia bat definitzea, elikagai xahuketari lotua.
- Ontziki hondakinen prebentziorako estrategia bat definitzea.
- Berrerabiltze eta konpontze estrategia bat definitzea.

### 6.2. GAIKAKO BILKETAREN HELBURUAK 2012 – 2016rako

- 2016an, gaikako bilketan % 60ra iristea, sortzaile tipologia bakoitzean –EH eta IMEHAK- sortutako guztizkoarekiko, udalerrri edota mankomunitate bakoitzean.
- Ontzi arinen gaikako bilketan % 10era iristea, sortutako guztizkoaren gainean.
- TEEHen bilketan 4 kg-ra iristea, pertsonako.
- MOKaren gaikako bilketa ezartzea Gipuzkoako udalerrri guztietan, sortutako guztizkoaren gaineko % 15etik gorako emaitzez eta % 5etik beherako desegokiz.
- Gainerako zatikia sortutako guztiaren % 30aren azpitik uztea.
- 

### 6.3. 2012 - 2016rako TRATAERA HELBURUAK

- Hondakin primarioetatik % 100 tratatzea, material berreskurapena maximizatuz.
- Gainerako zatikia tratatzeko azpiegituren eta horiek eragiten dituzten ustiapen-kostuen malgutasuna bermatzea, trataera behar errealetara egokitzearen eredia.
- Gipuzkoako hiru zabortegeak ixtea.
- Energia berriztagarria sortzea, San Markoko gaikako bilketatik datorren MOKetik abiatuta.
- MOKaren trataera deszentralizatua sustatzea, amaieran kalitate handiagoko konposta bermatzeko eta garraioari lotutako ingurumen eta ekonomia aldetiko inpaktuak murrizteko.
- Inbertsioak deszentralizatzea.
- Dinamizazio ekonomiko deszentralizatua sustatzea, mankomunitate guztietan lanpostu zuzenak sortuz.
- Bildutako ontzi arinen aukeraketa eta sailkapena bermatzea.
- Ontzietarako transferentzia planten eraikuntza bermatzea mankomunitate guztietan.
- Trataera kostuak arrazionalizatzea, eta hori gaikako bilketa sustatzeko eta gainerako zatikia zigortzeko tresnatzat erabiltzea.
- Tratamenduari eta balorizazio materialari ikusgarritasuna ematea, hondakinen gizarte pertzepzioa aldatzeko eta, aurrerantzean, baliabidetzat ikusiak izan daitezen.

## 7 PREBENTZIOA

Gauza agerikoa da jarraitu egin behar dela lurralde mailan burutu edo ezarritako jardueretan sakontzen, Aurrerapen Dokumentuko Gipuzkoarako Prebentzio Programan jasotakoetan alegia, ulertuz betiere programa horrek ezarri egiten dituela hondakinen hazkundera moteltzeko eta murrizte eta berrerabilpenerako politika eraginkorrak artikulatzeko oinarriak.

Hondakinen prebentzioaren arloko jarduerak herri administrazio guztiek garatuko dituzte, hots, bere ekintzez hondakin sorreran eragina izan dezaketen herri administrazio guztiek, bai udalek eta mankomunitateek, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak hiri hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Behatokiaren (PKB) bidez, bai probintzia, erregio, estatu edo Batasun mailako administrazioek. Alor pribatuaren ekimenak ere bultzatu egingo dira, hondakin sorreraren prebentzioaren arloan erabakitako ekintzen alde eginez.

Gipuzkoako Prebentzio Programaren garapenean, ikusten da areagotu egin behar direla ondoren deskribatzen diren jarduerak, hain zuzen ere eragin handiagoa dutelako hondakinak murriztera eta berrerabiltzera begira.

### 7.1. ETXEKO KONPOSTATZEA ETA KONPOSTATZE KOMUNITARIOA

Konpostatzea prebentzio neurri eraginkorra da. Era berean, oso eragin handia du ingurumen mailako sentsibilizazioari eta prestakuntzari dagokionez. 2011 arte, Gipuzkoako Foru Aldundiak etxeko 10.068 konpostagailu banatu ditu, doan, eta programa honetan sartu diren familia gipuzkoarrei prestakuntza-ikastaroak eman dizkie.

Gaur arte ez dira definitu autokonpostatzea ezartzeko irizpideak, eta konpostagailuen banaketa ez zaio lotu gauzatutako ezarpenen arrakasta analizatzea ahalbide dezakeen aldian aldiko jarraipen bati.

Autokonpostatzearen ezarpenak logika eta estrategia bati erantzun behar die, eta horiek konpostagailuen erabilera zuzena, MOKaren sorreraren benetako prebentzioa eta gainerako zatikiaren mamizko murrizte bat bermatu behar dute, autokonpostatzearen ezarpen hori gauzatzen den alorretan; eta, horrekin batera, bilketaren kostuen murrizketa ere ekarri behar dute. Gainera, bermatu egin behar da kudeaketa bide hori aukeratzen duten udal eta mankomunitateek giza baliabideak eta baliabide teknikoak aurreikusiko dituztela, banatutako konpostagailuen jarraipenik egokiena egiteko.

Ilido honetatik, hainbat ezarpen sistema aurreikusten dira, udalerrri bakoitzaren ezaugarrien arabera:

- **AUTOKONPOSTATZEA EDO KONPOSTATZE KOMUNITARIOA, KUDEAKETA BIDE BAKARTZAT.** Sistema hau 500 eta 1.000 biztanle bitarteko udalerrietan aurreikusten da, eta autokonpostatzea jotzen du MOKa kudeatzeko bide bakartzat; hala, sortzen den MOKaren % 100 etxeetan edo eremu komunitarioetan kudeatuko da. Kasu honetan, sistema ezartzearekin batera hondakin sorreraren murrizketa bat beharko litzateke, guztiaren gaineko % 26ko bat zehazki, eta, horrekin batera, gainerako zatikiaren bilketa maiztasuna ere murriztu egingo litzateke; horrenbestez, zerbitzuaren guztirako kostuak jaitsi egingo genituzke.

- **AUTOKONPOSTATZEA EDO KONPOSTATZE KOMUNITARIOA, KUDEAKETA BIDE OSAGARRITZAT.** Sistema hau 1.000 biztanletik gorakoak diren eta diseminatu edo sakabanatuak edo etxebizitza familiabakarrak nagusi diren zonak dituzten udalerrietan aurreikusten da. Kasu honetan komeni da, halaber, sistema ezartzeko unean estrategia eta logika bati erantzutea, gainerako zatikiaren bilketa optimizatu ahal izatearren. Eta, horretarako, autokonpostatzea edo konpostatze komunitarioa ezarri behar da, sektore osoak hartuz, gainerako zatikiak materia organikoa eramatea saihesteko.

Lehentasun gorenekoak izango dira etxeko konpostatzeari eta konpostatze komunitarioari lotutako ekintzak, eta bultzatu egingo da jarduera horien plangintza. Era berean, jarraipen ekintzak mantenduko dira, eta arlo honetako espezialista edo adituen prestakuntza bultzatuko da, konpostatzen duten familientzako laguntza eta egiten den jarraipena areagotzeko, udal eta mankomunitateekiko elkarlanean. Gainera, banatutako konpostagailuen benetako erabilerari buruzko informazio eguneratua lortu beharra antzeman da eta, beraz, mekanismoak inplementatuko dira, etengabe eguneratuta egongo den datu base bat lortzeko.

## 7.2. ELIKAGAI XAHUKETAREN PREBENTZIOA. GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUA (GEB)

Elikagai xahuketa lehentasunezko alderdia da Europar Batasunarentzat. Kalkuluen arabera, gaur egun Europan elikagai xahuketa, etxekoa zein komertziala, 95 kg/biz/urte-koa da batez beste, hau da, sortutako hondakin guztien gaineko % 20koa gutxi gorabehera.

Bektore honi lotutako prebentzio potentziala oso altua da. Horregatik, politikak eta ekintzak jarri behar dira abian, alderdi honen gainean eragiteko eta elikagai hondarrak saihesteko.

Elikagai xahuketaren prebentziorako ekimenetako bat Gipuzkoako Elikagai Bankua (GEB) da; honen bidez, izan ere, eta "Azken minutua" delako ereduari jarraiki, ez dira zabortegira eramaten elikagai kontsumigarri ez merkaturagarriak. Jarduera hau Gipuzkoa osora ari da zabaltzen, eta zabortegira zihoazen 400 tona elikagai baino gehiago desbideratu dira 2011n. Kolektibo behartsuenekin lanean ari diren elkarteetara urtean bideratzen den elikagai kopurua handitzea aurreikusten da. Jarduera hauek guztiek lagundu egiten dute elikagai xahuketa murrizten.

## 7.3. PREBENTZIO EKINTZETARAKO DIRULAGUNTZA LERROA

Udal, mankomunitate, dirua irabazteko asmorik gabeko elkarte eta sozietate publikoentzako dirulaguntzak, prebentzio eta berrerabiltze jardueretarako.

## 7.4. BERRERABILPENA SUSTATZEA

Prebentzio programak jarduketa multzo bat jasotzen du hondakinak berrerabiltzera begira. Dena den, ikusten da berrerabiltzea lehentasunezko zatitzat jasotzen duen hierarkia-printzipioaren aplikazioa areagotu beharra dagoela, birziklatzearen eta beste balorizazio modu batzuen aurrean. Hondakinak berrerabiltzeak aukerak dakartza berekin enplegu berdea garatzeko, eta garapen ekonomiko eta soziala eta ingurumenaren babesa elkarren osagarri izatea lortzeko bidean aurrera egiteko.

## **7.5. HEZKUNTZA ZENTROEKIKO LANKIDETZA**

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkartzarekiko lankidetzaren bidez, hondakin prebentziorako politikak ari dira garatzen Gipuzkoan –Ermua ere sartuta- dauden lehen eta bigarren hezkuntzako 305 zentroetako hezkuntza-esparruan.

## **7.6. ZERGA POLITIKA**

Europar Parlamentuak 2012ko maiatzaren 24an onartutako bide orriak birziklatze maila altuko eta errefus maila baxu-baxuko ekonomia bateranzko trantsizioa jasotzen du, fiskalitate ekologikoaren erreforma erabiliz, besteak beste, horretarako. Ildo honetatik, ikusten da Gipuzkoako lurraldeari egokitutako zerga politika bat garatu behar dela, hondakinen bilketa selektiboaren bultzadan eta errefus produkzioaren murrizketan oinarrituta.



## 8 GAIKAKO BILKETA

Gaikako bilketa eta sorburuan bereiztea dugu balorizazio materiala maximizatzeko modurik eraginkorrena. Eraginkortasuna maximizatzeko eta emaitzak hobetzeko, funtsezkoa da sortzaileari, hala etxekoari nola merkataritza, industria eta erakunde asimilagarriei, erantzukizun bat ezartzen dioten bilketa sistemak planteatzea.

### 8.1. GAIKAKO BILKETAREN IRISMENA ETA MUGAK

Gaikako bilketaren kasuan, ezartzen den sistema da, neurri handi batean, lortzen diren emaitza kuantitatiboak eta kualitatiboak markatzen dituen faktorea.

Kontuan hartzen badugu ohiko poltsako hondakin birziklaezinak ez direla guztizkoaren % 10 baino gehiago, begibistakoa da balorizazio sistemarik eraginkorrenak sorburuan behar bezala bereiztea eskatzen duela.

Hau da estrategia honen ardatz nagusia, zeren eta ez baitago gaikako bilketa egoki-egoki baten eraginkortasuna hobetu dezakeen inolako teknologiarik.

Hondakin bat, benetan, baliabide bat da, behar bezala bereiziz gero. Eta estrategia honek ideia horrekin koherentea izan nahi du, eta horregatik proposatzen du 2016an gaikako bilketan % 60tik gora lortzen duten udal eta mankomunitateei pizgarriak ematea, eta zigortzea, berriz, maila horretako emaitzetara iristeko behar beste baliabide jartzen ez dutenak.

Aurrerapen Dokumentuak partaidetzaren irismenari, partaidetzaren eraginkortasunari eta partaidetzaren purutasun mailari buruzko hipotesi bat azaltzen du, zatiki edo frakzio bakoitzaren –beira, papera eta kartoia, ontzi arinak, MOB-gaikako bilketa potentziala zehaztearren. Azken urteotako eskarmentuak agerian laga du jasotze- edo kaptazio-potentziala gaikako bilketarako sistemaren arabera dela. Bilketa sistema desberdinak daude, eta bakoitzak bere ñabardurak ditu. Baina, funtsean, laburpen hau egin dezakegu:

20. taula. **Zatiki edo frakzioen bilketa-potentziala, bilketa sistemaren arabera.**  
Iturria: Geuk egina

	JASOTZE-POTENZIALA				
	MOK	BIRZIKLAGARRIAK	DESEGOKIEN %	GAIKAKO BILKETAREN %	GAINERAKOA
<b>SISTEMA IREKIA</b>					
EDUKIONTZI IREKIA	% 20	% 25	> % 5	% 45	% 55
<b>SORTZAILEA ERANTZULE EGITEN DUEN SISTEMA</b>					
EDUKIONTZI GILTZADUNA, BORONDATEZKOA	% 10	% 20	< % 5	% 30	% 70
EDUKIONTZI GILTZADUNA, DERRIGORREZKOA	% 20	% 40	< % 5	% 60	% 40
ATEZ ATE	% 25	% 50	< % 5	% 75	% 25

Portzentaje hauek aipatutako sistema puruei buruzkoak dira, betiere MOKa gaika biltzen bada. Aukera badago, halaber, bilketa sistemak konbinatzeko, zatikiaren arabera. Horixe da Gipuzkoan gertatzen dena, ezen gaikako bilketarako sistema gehienak mistoak dira, eta modu espezifikoan definitzen dira zatiki bakoitzerako.

2008 - 2016 Aurrerapen Dokumentuan planteatutako 5. sistema pertsonalizatu borondatezkoaren proba pilotuak aztertu ondoren, eta abian diren atez ateko bilketaren esperientzietatik ateratako emaitzez, konklusioa atera dezakegu atez ateko sistema dela aurreratuen, gaika biltzen diren materialei dagokienez kalitatea eta kantitatea lortzen baititu.

Sistema honek, emaitza onenak lortzeaz gain, aukera ematen du gauzak ongi egiten dituen jendeari pizgarriak aplikatzeko, eta zerbitzuaren kobrantza produzitzen den hondakin kantitate eta tipologiari egokitzeko. Herritar guztiei tasa uniforme bat kobratu beharrian, sorreraren arabera kobratzeko sistemak modua ematen du herritarrek, sorburutik beretik, gauzak ongi egitera bultzatzeko eta egiten duten ahalegina aintzatesteko.

## 8.2. GAIKAKO BILKETAREN GIPUZKOAKO EREDUA

Aurrerapen Dokumentuan jasotzen den gaikako bilketarako eredia 5. sisteman oinarritzen zen, pertsonalizatuan; horren arabera, 4 frakzio edo zatiki klasikoez gain, erabiltzea borondatezkoa izango zen beste edukiontzi bat jarriko zen, etxeko MOKa biltzeko.

Dena den, 2008 - 2016 Aurrerapen Dokumentua onartu zenez geroztik atez ateko sistemak lortu dituen emaitzek eta gizarte eta erakunde mailan izan den gogoetak ekarri dute atez ateko bilketa sistema hartzea, eraginkorren eta emaitzetara begira ondoen funtzionatzen duen sistematzat.

Gipuzkoan azkenean erabakitako eredia sortzaileak erantzukizuna duen derrigorrezko sistema baterantz doa, gaikako bilketa maximizatzeko eta bildutako zatikien kalitatea areagotzeko, lurraldeko udalerrri gehienetan atez ateko bilketa sistemak jarriz horretarako.

## 9 TRATAMENDUA. PROPOSATUTAKO EREDUA ETA AZPIEGITURAK

Aurreko puntuetan itxuratutako eszenatokian oinarrituta, eta kontuan harturik hazkunde demografikoari eta egoera ekonomikoari egokitutako sorrera aurreikuspenak eta gaikako bilketaren tasek izango duten gorakada etengabea, europar zuzentarauen arabera derrigor behar den moduan, ondoko azpiegiturak planteatzen dira zati organikoa, ontzi arinak eta gainerako zatikia tratatzeko eta hondakin sekundarioak ezabatzeko.


### 9.1. MOKa TRATATZEKO PLANTAK

MOKa tratatzeko plantak diseinatzeko eta kokatzeko jarraitu diren irizpideak hurbiltasun, deszentralizazio, malgutasun, sinpletasun eta kalitate kontrola izan dira, bai prozesuari bai produktuari dagokienez. Ildo honetatik, planta guztiak gaikako bilketatik datorren eta desegoki maila baxua < % 5- duen MOKarekin lan egiteko daude planteatuta, betiere merkatu-balioa irabazi ahal izango duen kalitatezko produktu bat bermatzera begira. MOKa tratatzeko plantetako bat bera ere ez dago diseinatuta masa-hondakinak edo gainerako zatikia tratatzeko, ezta desegokien portzentaje handiagoko zati organikoa ere.

2012-2016-2020 epean zehar MOK horrentzat aurreikusten den progresioa honakoa izango da –bertan sarturik kudeaketa publikoko IMEHAetako MOKa ere-:

19. irud.

MOKaren gaikako bilketak Gipuzkoan 2012 - 2020 epean izango duen bilakaera aurreikusia  
Iturria: Geuk egina



Ikusten den moduan, MOKaren gaikako bilketa dela-eta egun tratatu beharreko kopurua seiz biderkatuko da, hemendik 2016ra, eta zortiz, 2020rako. Beraz, MOK tona kopuruaren igoera horri aurre egiteko gai izango diren plantak dimentsionatu behar dira.

Mankomunitateetatik datorren MOKa honakoa da:

21. taula.

Gipuzkoan MOKa tratatzeko beharren prognosia  
Iturria: Geuk egina

	2.014	2016	2018	2020
TXINGUDI	2.558,68	6.273,28	9.037,90	10.488,77
SAN MARKO	13.355,52	25.045,16	31.123,49	36.466,40
TOLOSALDEA	4.628,78	5.605,87	5.806,75	6.827,69
SASIETA	4.019,26	5.491,28	6.431,66	7.542,93
DEBAGOIENA	5.920,97	5.969,67	5.162,30	5.973,70
DEBABARRENA	1.342,72	4.664,17	5.981,67	6.993,81
UROLA ERDIA	3.144,02	3.268,89	2.899,61	3.439,39
UROLA KOSTA	4.839,62	5.078,34	4.995,61	5.930,69
GUZTIRA	39.809,57	61.396,66	71.439,00	83.663,39

Mankomunitate bakoitzak sortzen duenaren arabera, 7 plantaz osatutako trataera eredu deszentralizatu bat planteatu da.

22. taula.

Tratamendurako proiektatutako ahalmenaren plangintza  
Iturria: Geuk egina

MOKa tratatzeko ahalmen proiektatua (tonak)	
TXINGUDI	8000
SAN MARKO	35000
TOLOSALDEA	6000
SASIETA	6000
DEBAGOIENA	8000
UROLA ERDIA	10000
UROLA KOSTA	6000
GUZTIRA	79.000

Dimentsionatze hau etorkizunean MOKa tratatzeko izango diren beharrak estaltzeko pentsatu da. Ikusten denez, 2020rako markatutako helburuak betez gero, trataera ahalmenean beharrezkoa baino beheraxeago egongo ginateke. Ez litzateke, baina, arazoa izango, zeren eta trataera aerobiorako instalazioen diseinuak aukera ematen baitu tratatzen den tona kopurua areagotzeko, prozesuaren hartitze fasea biziagotuz gero.

MOK hori tratatzeko bi prozesu mota aukeratu dira, prozesu aerobioak eta anaerobioak hurrenez hurren, hau da, oxigenoa badagoen tratamendua eta oxigenorik ez dagoen tratamendua. MOKaren trataera anaerobioa balorizazio energetikorako prozesu bat da; beroa eta metanoa produzitzen ditu azpiproduktu gisa, eta hori jasotzen delarik, % 100 berriztagarria den energia sor daiteke.

Gauzak horrela, jasotzen diren instalazio motak bi dira:


**KPD (KONPOSTATZE-PLANTA DESZENTRALIZATUA).** Urtean 10.000 tona baino gutxiago konpostatzeko ahalmena duten plantak. Mankomunitate bakoitzak horrelako planta bat edukiko du. Salbuespenak Debabarrena, honek Urola Erdiarekin partekatuko baitu instalazioa, eta San Marko izango dira, honek jasotze- edo kaptazio-potentzial handiagoa baitu. Konpostatze-planta hauen kasuan, oro har planteatzen da bilketaren logistikan laguntzeko prestatutako espazio bat edukitzea, beste zatiki birziklagarri batzuetarako eta bolumen handiko hondakinetarako transferentzia-estazioz hornituta. Horrelako espaziorik ez da eraiki behar izango, dagoeneko transferentzia-estazioa baduten mankomunitateen kasuan.

**DAP (DIGESTIO ANAEROBIORAKO PLANTA).** Bakar-bakarrik San Marko mankomunitatean jasotzen den UHZOrako zerbitzua emango du, eta horrexetarako dimentsionatuko da.

20. irud.

**Aurreikusten diren MOKa tratatzeko azpiegiturak.**

Iturria: Geuk egina





## 9.2. ONTZI ARINAK TRATATZEKO PLANTAK

Aurreko 4.2 puntuan aipatu den moduan, Urnieta eta Legazpiko aukeratze-plantak 11.958 tona ontzi arin tratatzen dituzte, baina trataera ahalmena areagotu beharra dago, agerikoa baita egungo plantek muga fisikoak dituztela gaikako bilketa sistema eraginkorragoak inplementatzen direnean biltzen diren ontzi guztiak hartu ahal izateko. Egungo planta horiekin posible izango litzateke trataera ahalmena pixka bat handitzea, lan-txandak areagotuz horretarako, baina muga fisikoak direla-eta Zubietan ontzi arinak tratatzeko planta berri bat eraikitzea planteatzen da, material berreskurapenaren eraginkortasuna areagotzearen. Trataera-planta hau 30.000 tonako ahalmenaz planteatzen da.

21. irud.

Ontziak aukeratu eta sailkatzeko aurreikusten diren azpiegiturak.

Iturria: Geuk egina



### 9.3. GAINERAKO ZATIKIA TRATATZEKO AZPIEGITURETARAKO PROPOSAMENA

2012-2016 eperako lehenbiziko trataera helburua gaur egun zabortegirako den materialetik, hots, hondakin primarioetatik % 100 tratatzea lortzea da. GHHKPOk dagoeneko jasotzen bazuen ere 2006ko urterako hondakin primarioen kopurua zerokoa izatea, orain arte ez da bete, eta ez da beteko harik eta masan egiten den bilketak pisua galtzen duen arte gaikako bilketa areagotzearekin batera, eta gainerako zatikia tratatzeko instalazioak amaitzen diren arte.


Helburu hori lortzeko, trataera mekaniko biologikorako 3 planta eraikitzea proposatzen da. Planta horiek material birziklagarrien berreskuratzea maximizatzeko eta hondakin primarioaren egonkortze biologikoa lortzeko helburuz planifikatzen dira, horrela betez alegia zabortegiei buruzko europar zuzentarauak ezartzen dituen betekizunak. Hala eta guztiz ere, planta horiek ematen duten errendimendua gaikako bilketa areagotuz lortzen dena baino askoz txikiagoa da. Teknologiarik onena pertsonak dira, eta teknologia asko eta asko sartu arren, sekula ez dira lortuko gaikako bilketa sistema eraginkorrez lortzen diren emaitzak.

Ildo honetatik, begi-bistakoa da ezen material berreskurapena maximizatzearen aldeko apustua ez dela instalazio mota horretatik igarotzen, baizik eta hondakinak sorburuan bertan behar bezala bereiztetik.

Gipuzkoan gainerako zatikiarentzat aurreikusten den bilakaera ikusten badugu, konturatuko gara ezen, tratatu beharreko gainerako zatikiaren etengabeko jaitsiera gertatu arren, aurreikusten den gehienezko eskaeraren arabera dimentsionatu behar direla trataera-plantak.

22. irud.

Gainerako zatikiaren bilketaren bilakaera aurreikusia Gipuzkoan 2012 – 2020 eperako  
Iturria: Geuk egina



Horregatik, gainerako zatikia tratatzeko sistema erdi-deszentralizatu bat aukeratzen da. Izan ere, horren bidez hurbiltasun irizpidea eta gainerako zatikiaren kudeaketa egokia bateratu ahal izango dira.

Ildo honetatik, Zubietan 90.000 tona tratatzeko zentro bat eta Sasietan eta Urola Erdian TMB sinpleko zentro bana -30.000 tonako ahalmena bakoitzak- eraikitzea proposatzen da.

**TMB SINPLEA.** Trataera mekaniko-biologikorako plantak, 30.000 t tratatzeko ahalmena dutenak. Teknologiaren sinpletasunean eta inbertsio baxuan oinarritzen dira, eta horietan zabortegira eraman aurreko trataera mekaniko simple baina behar besteko bat ematen da –material birziklagarrietan % 5 berreskuratzen da-, materiala egonkortzeko trataera biologiko batekin batera –sarrerako pisuaren % 15eko galera-.

**ZUBIETAKO TRATAERA ZENTROA (TMB AURRERATUA).** Trataera mekaniko-biologikorako planta, gehienez 90.000 t tratatzekoa. Goi mailako teknologia intentsiboko planta, Zubietan kokatua. Zabortegira eraman aurreko trataera mekaniko bat egingo da –material birziklagarrietan % 10 berreskuratuko da-, materiala egonkortzeko trataera biologiko batekin batera –sarrerako pisuaren % 30eko galera-.

Prozesu biologiko modular eta malgua planteatzen da. Instalazio hauek, gaika bildutako MOKa tratatzen den digestio anaerobiorako plantatik datorren digestatua hartu ahal izango dute, eta ondorengo hartitze aerobiorako prozesu baten ondotik konposta produzitu. Era berean, prozesu biologikoa masako hondakinaren eta gainerako zatikiaren frakzio biodegradagarria egonkortzeko erabili ahal izango da, eta bihondakin egonkortu bat lortzeko horrenbestez. Hala, MOKaren gaikako bilketak gora egiten duen neurrian, gero eta modulu gehiago erabiliko dira digestatuen zahartzapenerako, eta murriztu egingo dira gainerako zatikiaren egonkortze biologikorako erabiltzen diren moduluak.

Plantek beharko duten ahalmenaren proiektzioa honakoa da:

23. taula.


Gipuzkoan MOKa tratatzeko beharren prognosia  
Iturria: Geuk egina

	2.014	2.016	2.020
ZUBIETAKO TRATAERA ZENTROA	114.732,69	90.553,92	43.343,24
SASIETAKO TMB	32.104,30	27.826,47	18.779,38
UROLA ERDIKO TMB	30.469,76	24.078,42	15.105,13
<b>GUZTIRA</b>	<b>177.306,76</b>	<b>142.458,81</b>	<b>77.227,74</b>



23. irud.

**Gainerako zatikia tratatzeko azpiegiturak.**  
Iturria: Geuk egina



Beste azpiegiturak planifikatzeko jorratutako filosofia berari jarraiki, gainerako zatikia tratatzeko plantak malguak izateko daude planeatuta, eta horrela gaikako bilketaren gorakada bizkor eta etengabea ahalbidetzeko. Eta malguak izaki, gainerako zatikia tratatzeko Zubietako zentroa zein beste TMB planta sinple biak eskalagarriak izango dira, eta itzulgarriak seguruenik; beraz, behar izanez gero ahalmen txikiago batez funtzionatu ahal izateaz gain, aukera egongo da MOKari trataera biologikoa emateko lineak ere erabiltzeko.

Planta horiek Gipuzkoako gainerako zatikiaren % 100 kudeatuko dute. Orain arte zabortegira doazen material birziklagarriak berreskuratzea ere ahalbidetuko dute, eta gainerako zati horretan dagoen materia organikoa biologikoki egonkortzea ere bai. Prozesu honen emaitza gisa, ateratzen diren hondakin sekundarioak biologikoki egonkortuta egongo dira, eta horrenbestez posible izango da horiek depositatzea, urte askoan zehar inolako tratamendurik gabe isuritako hondakin primarioek eragindako ingurumen arazoak alde batera lagata. Hala, planteatutako aurretrataera horri esker, itxi egingo dira gaur egun Gipuzkoan dauden hiru zabortegiak –Lapatx, Urteta eta Sasieta-, eta material egonkortua espazio degradatuak leheneratzeko material gisa erabiliko da.

Sarrera eta irteeren xehetasunak 2016korako eta 2020korako prognosi diagrametan ikus daitezke.

### 9.3.1. HONDAKIN EGONKORTUEN FARDELEN DEPOSITATZE KONTROLATUA, ESPAZIO DEGRADATUAK LEHENERATU ETA BERRESKURATZEKO

#### DEFINIZIOA ETA ARRAZOIAK

Hondakinak depositatzeko modalitate finalista bat da, hondakin egonkortu eta trinkotuen fardelak espazio natural degradatuen betetze sanitariorako materialtzat erabiltzean oinarritua. Hondakin fardelak hondakin sekundarioz osatuta daude, trataera mekaniko-biologikorako zentroetan (TMB) aurrez egonkortuta betiere. Horrela, bermatu egiten da material biodegradagarria pisuaren % 10 baino gutxiago dela, eta material birziklagarrietan ere edukirik minimoa dutela.



Metodo honen helburu nagusia zera da, horrelako gordetegien ingurumen inpaktua minimora murriztea, egungo zabortegiak ixtea eta hondakin sekundarioak botatzeko espazio berriak aurkitu eta zabaldu beharra saihestea. Ondorioz, espazio degradatuetako erliebea eta jatorrizko paisaia berreskuratzea lortzen da, denbora laburrean.

Gordetegi finalistarako eredu honen abantaila nagusiak honakoak dira:

1. Bektore sanitariorik ez izatea gordetegi kontrolatuetan (karraskariak, hegaztiak, etab.).
2. Eraginkortasun eta higiene handiagoa bai hondakinen garraioan bai erabilitako baliabideetan.
3. Fardel egonkortuen garraio eta gestioan zehar, eduki biodegradagarrien deskonposizio prozesu motela. Horrela murriztu egiten dira manipulazio faseko metano emisioak eta lixibiatuak.
4. Ikusizko inpaktu txikiagoa eta haizearen eraginezko hondakin dispertsiorik ez.
5. Usain txarrik ez.
6. Ia-ia batere lixibiatuak ez; eta, sortuz gero, gatz disolbagarrietan duten edukia hondakin ez enbalatuen gordetegi kontrolatuetakoa baino askoz txikiagoa da.
7. Hondakinak manipulatzeko konplexutasun operatibo txikiagoa, eta, horrenbestez, ustiapen kostuak murriztea.

#### PROZESUA

1. Gordetegi-ontzia irazgaiztea. Lurraren ezaugarri geologikoen arabera, drainatze eta babes geruzak instalatu behar dira oinarrian, eta irazgaizteko lamina sintetikoak eta ehunezkoak ezpondetan.
2. Sarbideak egokitzea. Sarrerak prestatu eta egokitzea, betetze lanen faseetarako.
3. Euri urak biltzeko sarea. Drainatzeak saihestu egiten du euri urak fardelak ukitzea.
4. Lixibiatuak drainatzea. Fardelek materia organikoan duten edukia txikia dela eta, lixibiatu iturri nagusia euri urak izango dira; hauek drainatze sarearen bidez bilduko dira.

5. Gasak ateratzea. Ez da ia-ia biogasik sortzen, baina emisio aukera oro deuseztatzeko, tximiniak jartzea komeni da (iragazkiak instalatzeko modukoak izan behar dute, behar izanez gero erabiltzeko).
6. Hondakinak lur eta buztinez estaltzea.
7. Landare estaldura.
8. Leheneratze lanaren amaiera, ingurumen kontrola eta egonkortasuna monitorizatzea.

## ERREFERENTZIAK

Hainbat urtetatik hona, hondakin egonkortuzko fardel trinkotuak erabiltzen ari dira gordetegi kontrolatuetan jartzeko, Europako hainbat herrialdetan. Dagoeneko erabiltzen ez diren aire zabaleko meatzaritzako ustiategietako espazio degradatuak helburu bererako erabiltzea praktika berriagoa da, eta European dagoeneko badira esperientzia ezagunak 2004ko urteaz geroztik, besteak beste Trentoko probintzian (Italia iparraldea, 450.000 biztanle) eta Danimarka eta Groenlandia arteko hondakinen esportazio/inportazio harremanetan.

Kasurik hurbilena Katalunian ari da garatzen, 2005ean Badalonako udalerriko harrobi zahar batean abian jarritako lehen esperientzia pilotuaz; Kataluniako Unibertsitat Politècnica ari da monitorizatze eta ebaluazio lana egiten. Kasu berriena, une honetan ixte fasean dago, Cerdanyolako udalerrian garatu dute. Horien guztien sustatzaileak, besteak beste, Bartzelonako Metropoli Inguruko erakunde publikoak eta Kataluniako Generalitatearen Agència de Residus de Catalunya (ARC) izan dira. Azken esperientzia hau dagoeneko erabiltzen ez den 5 ha-ko harrobi batean garatu dute, 870.000 m<sup>3</sup> udal hondakin hartzeko ahalmen batez. UPCK prestatutako txosten teknikoko emaitzen argitan, aktibitate biologikoa zaharo murrizten da denbora gutxian, eta aldi berean nabarmen murrizten da fardel barnean metano gasa sortzea, egonkortzeko joera batez gainera. Lixibiatuak ia-ia agertu ere ez dira egiten, eta sortzen direnak kutsadura maila baxukoak dira.

### 9.3.2. GAINERAKO ZATIKIA AZTERTZEKO ETA BERRESKURATZEKO ZENTROA

Zubietako TMB aurreratua osagai garrantzitsu bat da gainerako zatikia aztertzeke eta berreskuratzeko zentroa. Zentro honen eginkizuna izango da gaikako bilketa maila altua duten udalerrietako hondakinetan datorren gainerako zatikiaren osaketa aztertzea, antzemateko zein diren hondakinik problematikoenak, gaikako bilketaren tasa % 90etik gora eramatea zailtzen dutenak. Zentro honek hondakinen auditoretzat egingo ditu, horien ezaugarriak aztertuz:

- ekoizlearen erantzukizun hedaturako estrategiak eta ekintzak abiarazteko
- gaikako bilketa optimizatzeko erak aztertzeke
- hondakinen birziklagarritasuna, berrerabilera, konponketa eta gainerako faktoreak hobetzearren berdiseinatze-iradokizunak proposatzeko
- produktuak berdiseinatzeko proposamenak egitearren ekoizleen, banatzaileen, kudeatzaileen eta kontsumitzaileen arteko harremanak sortzeko eta antolatzeke

## ERREFERENTZIAK

Hondakinen bilketan gaikako bilketak proportzioa handia duen prozesuetan gainerako zatikia aztertzeke saio arrakastatsuak abiarazi dira Italian, eta lankidetzan harreman onuragarriak sortzeko aukera eman du, administrazio, enpresa, unibertsitate eta herritarren artean, ekodiseinuaren edo prebentzioaren aldetik gaur egun hobegarri diren produktueterako alternatibak bilatzearren. Toskanako Capannori hiria (50.000 biztanle), hain zuzen, lehenbiziko

udalerrria izan zen horrelako zentro bat sortzen, eta gaikako bilketa % 90etik gertura eramatea lortzen ari da, besteak beste, gainerako zatikia aztertzeko eta berreskuratzeko zentroan egindako ikerketari esker.

## 9.4. MASA BALANTZEA

### 9.4.1. MASA BALANTZEA 2016RAKO HAUTATUTAKO EGOERARAKO

24. taula.

Masa balantzea hautatutako egoerarako 2016  
Iturria: Geuk egina

HONDAKIN PRIMARIOa			BALORIZAZIOA / TRATAERA			IRTEERA			
ZATIKIA / SORTZAILEA	t/urte	%	TRATAERA	t/urte	%	MATERIALA / XEDEA	t/urte	%	APLIKAZIOA
<b>MOK / LZ</b>									
EH	50.345,26	15%	DIGESTIO ANAEROBIA	25.045,16	8%	KONPOSTA	20.680,26	6%	LOREZAINZA / NEKAZARITZA
IMEHA	11.051,40	3%	KONPOSTATZEA	36.351,49	11%	KONPOSTATZE ERREFUSAK	3.069,83	1%	GUNEEN LEHENGORATZEA
						GALERAK (H2O, CO2, E)	37.646,56	11%	
<b>BIRZIKLAGARRIAK</b>									
EH	101.525,99	31%	HAUTAPENA / SAILKAPENA / BIRZIKLATZEA	123.812,18	38%	BIRZIKLATUTAKO MATERIALA	111.272,18	34%	PRODUKTU BERRIAK
IMEHA	22.286,19	7%				GUNEEN LEHENGORATZEA	12.540,00	4%	GUNEEN LEHENGORATZEA
<b>GAINERAKOA</b>									
EH	116.816,22	36%	TMB AURRERATUA	90.553,92	28%	MATERIAL BIRZIKLAGARRIA	11.650,64	4%	PRODUKTU BERRIAK
IMEHA	25.642,59	8%	TMB ARRUNTA	51.904,89	16%	MATERIAL EGONKORTUA	104.911,66	32%	GUNEEN LEHENGORATZEA
						GALERAK (H2O, CO2)	25.896,52	8%	
<b>GUZTIRA</b>	<b>327.667,64</b>			<b>327.667,64</b>			<b>327.667,64</b>		

25. taula.

Balorizazio laburpena 2016  
Iturria: Geuk egina

BALORIZAZIOA / XEDEA	t/urte	%
KONPOSTA	20.680,26	6%
BALORIZAZIO MATERIALA	122.922,81	38%
GUNEEN LEHENGORATZEA	120.521,49	37%
GALERA	63.543,08	19%
<b>GUZTIRA</b>	<b>327.667,64</b>	<b>100%</b>

# Prognosia 2016



## 9.4.2. MASA BALANTZEA 2020RAKO HAUTATUTAKO EGOERARAKO

26. taula.


Masa balantzea hautatutako egoerarako 2020  
Iturria: Geuk egina

HONDAKIN PRIMARIOa			BALORIZAZIOA / TRATAERA			IRTEERA			
ZATIKIA / SORTZAILEA	t/urte	%	TRATAERA	t/urte	%	MATERIALA / XEDEA	t/urte	%	APLIKAZIOA
<b>MOK / LZ</b>									
EH	68.603,98	21%	DIGESTIO ANAEROBIA	36.466,00	11%	KONPOSTA	27.244,60	8%	LOREZAINZTA / NEKAZARITZA
IMEHA	15.059,41	5%	KONPOSTATZEA	47.196,00	14%	KONPOSTATZE ERREFUSAK	4.183,10	1%	GUNEEN LEHENGORATZEA
						GALERAK (H2O, CO2, E)	52.234,30	16%	
<b>BIRZIKLAGARRIAK</b>									
EH	131.930,72	40%	HAUTAPENA / SAILKAPENA / BIRZIKLATZEA	160.891,13	49%	BIRZIKLATUTAKO MATERIALA	143.641,13	44%	PRODUKTU BERRIAK
IMEHA	28.960,40	9%				GUNEEN LEHENGORATZEA	17.250,00	5%	GUNEEN LEHENGORATZEA
<b>GAINERAKOA</b>									
EH	63.326,75	19%	TMB AURRERATUA	43.343,00	13%	MATERIAL BIRZIKLAGARRIA	6.028,54	2%	PRODUKTU BERRIAK
IMEHA	13.900,99	4%	TMB ARRUNTA	33.884,74	10%	MATERIAL EGONKORTUA	57.447,89	18%	GUNEEN LEHENGORATZEA
						GALERAK (H2O, CO2)	13.751,31	4%	
<b>GUZTIRA</b>	<b>321.782,25</b>			<b>321.780,87</b>			<b>321.780,87</b>		

27. taula.

Balorizazio laburpena 2020  
Iturria: Geuk egina

BALORIZAZIOA / XEDEA	t/urte	%
KONPOSTA	41.831,69	13%
BALORIZAZIO MATERIALA	147.502,51	46%
GUNEEN LEHENGORATZEA	83.215,36	26%
GALERA	49.232,68	15%
<b>GUZTIRA</b>	<b>321.782,25</b>	<b>100%</b>



## 10 INBERTSIOAK

Proposatutako estrategiak eskatzen duen inbertsioa da guztira 182.675.000 €. Inbertsio horien barruan kontuan hartu dira dagoeneko aurreikusita dauden instalazioak nahiz inbertsioak eraikitzeko lurren erosketa (eraikuntza fasean dauden Debabarreneko transferentzia planta, Urola Erdiko konpostatze-planta), eta Zubietan burututako egintzen legeztatze tramiteak, lur erosketak eta inbertsioak.

28. taula.

Inbertsioen aurreikuspen laburpena  
Iturria: Geuk egina

AZALPENA	INBERTSIO AURREIKUSPENA
<b>TRATAERA DESZENTRALIZATUTAKO INBERTSIOAK MOK / TMB ARRUNTAK</b>	
KPD UROLA KOSTA	6.000.000 €
KPD TXINGUDI	9.200.000 €
KPD TOLOSALDEA	6.000.000 €
KPD + TMB + TG SASIETA	14.700.000 €
KPD + TMB + TG UROLA ERDIA	18.100.000 €
KPD + TG DEBAGOIENA	8.125.000 €
TG DEBABARRENA	1.900.000 €
<b>HIRI HONDAKINEN BERRESKURATZE ETA IKERKETA ZENTRORAKO INBERTSIOAK</b>	
DAP + TMB/KP + TG + PCSE + IKERKUNTZA K.	73.050.000 €
<b>GORDETEGI KONTROLATURAKO INBERTSIOAK</b>	
GAUR EGUNGO ZABORTEGIETAN EGINDAKO ZABALPEN LANAK	3.600.000 €
GUNE ANDEATUAK BERRESKURATZEA	42.000.000 €
<b>AURREIKUSITAKO INBERTSIOAK GUZTIRA</b>	<b>182.675.000,00 €</b>

Ikus daitekeenez, aurreikusitako inbertsioaren zenbatekoa erdia baino gutxiago da, hasieran ADan ageri ziren azpiegiturak gauzatzeko benetako aurrekontuaren aldean (380.000.000,00 €). Horrez gain, inbertsioaren ezaugarrietako bat da denboran geroratuagoa dela, batez ere andeatutako guneak berreskuratzeko atalari dagokionez. Kontsiderazio horiek gogoan izanik, finantzaketa beharrak zorrozki murriztuko direnez, Estrategia honek errotik lagunduko du administrazioen eta erakunde publikoen zorpetze maila mugatzen.

Azaldu diren inbertsio guztiek kontuan hartzen dituzte lur erosketak. Jarraian, proposatutako instalazio bakoitzak izango dituen lurzoru beharrak zehazten dira.



29. taula.

Lurzoru beharrak mankomunitate eta instalazio bakoitzean.  
Iturria: Geuk egina

INSTALAZIOA	INSTALAZIOA	ZATIKIA	SARRERA	AZALERA
<b>ZUBIETA</b>	TMB	GAINERAKOA	90.000 t/u	4,0 ha
	DAP	MOK	35.000 t/u	1-1,4 ha
	Ontziak	Ontzi arinak	30.000 t/u	1,2 ha
	Tamaina handikoak	Tamaina handikoak eta zatiki begetala		0,3 ha
	Transferentzia	Irteera isuria TMB eta beste	67.500 t/u	0,4 ha
<b>TXINGUDI</b>	<b>GUZTIRA</b>			<b>5,9 ha</b>
	KPD	MOK	8.000 t/u	1-1,2 ha
	Tamaina handikoak	Tamaina handikoak eta zatiki begetala		0,2 ha
<b>UROLA KOSTA</b>	<b>GUZTIRA</b>			<b>0,2 ha</b>
	KPD	MOK	6.000 t/u	1-1,2 ha
	Tamaina handikoak	Tamaina handikoak eta zatiki begetala		0,2 ha
<b>SASIETA</b>	<b>GUZTIRA</b>			<b>0,2 ha</b>
	TMB	GAINERAKOA	30.000 t/u	2,0 ha
	KPD	MOK	6.000 t/u	1-1,2 ha
	Tamaina handikoak	Tamaina handikoak eta zatiki begetala		0,2 ha
	Transferentzia	Irteera isuria TMB eta beste	22.500 t/u	0,2 ha
<b>UROLA ERDIA</b>	<b>GUZTIRA</b>			<b>2,4 ha</b>
	TMB	GAINERAKOA	30.000 t/u	2,0 ha
	KPD	MOK	10.000 t/u	1,2 ha
	Tamaina handikoak	Tamaina handikoak eta zatiki begetala		0,2 ha
	Transferentzia	Irteera isuria TMB eta beste	22.500 t/u	0,2 ha
<b>DEBAGOIENA</b>	<b>GUZTIRA</b>			<b>3,6 ha</b>
	KPD	MOK	8.000 t/u	1-1,2 ha
	Tamaina handikoak	Tamaina handikoak eta zatiki begetala		0,2 ha
<b>DEBABARRENA</b>	<b>GUZTIRA</b>			<b>0,2 ha</b>
	Tamaina handikoak	Tamaina handikoak eta zatiki begetala		0,2 ha
<b>TOLOSALDEA</b>	<b>GUZTIRA</b>			<b>0,2 ha</b>
	KPD	MOK	6.000 t/u	1-1,2 ha
	Tamaina handikoak	Tamaina handikoak eta zatiki begetala		0,2 ha
	<b>GUZTIRA</b>			<b>0,2 ha</b>

Nabarmendu beharra dago mankomunitate bakoitzak behar izango dituen inbertsioen eta lurzoru beharren definizioa baldintza duen faktore bat izan dela Zubietan dagoeneko erositako lurrak eta egindako inbertsioak. Horrek gogorki baldintzatu du gune horren erabilera eta probetxamendua, ezinezkoa gertatzen baita trataera azpiegiturak kokatzeko hautabide zentzuzkoagoak baloratzea. Arrazoi hori dela medio, Zubietak biltzen ditu inbertsio handiena eta beharrezkoa den lurzoru azalera gehiena.



2016rako ADGEaren plangintza egin daiteke erritmo desberdinak aintzat hartuta, instalazioen tipologiaren arabera. Zentzu horretan, bi azpiegitura mota bereiz daitezke:

- **INBERTSIO APALEKO ETA SOILTASUN TEKNOLOGIKOKO AZPIEGITURAK.** KPDei dagozkie, sortzen diren hiri hondakinen % 15 tratatzeko aukera ematen dute, eta 18 hilabeteren buruan has daitezke lanean gehienez ere; horrek irtenbidea ematen dio 2013rako MOKen trataeraren larritasunari.
- **INBERTSIO HANDIKO ETA TEKNOLOGIA TRINKOKO AZPIEGITURAK.** TMB arrunt nahiz aurreratuei dagozkie, DAPi eta ontzien hautapen eta sailkapen plantari. Halako plantak lanean hasiko dira 33 hilabeteren buruan, une horretan itxiko baitira Sasietako, Urtetako eta Lapatxeko zabortegeiak, bildutako hondakinen % 100 tratatuko baitira ordurako, eta egonkortutako materialak utzi ahal izango baitira andeatutako guneetan, haiek berreskuratzeko xedez.

## 12 HAUTATUTAKO ESTRATEGIAREN JUSTIFIKAZIOA

### 12.1. INGURUMEN ARLOKO JUSTIFIKAZIOA

#### 12.1.1. HONDAKIN SORRERA MURRIZTEA

Proposatzen den estrategian, hondakinen sorreraren murrizketak (ikus 15. irudia) gogoan ditu azken joera ekonomiko nahiz demografikoak, baina aldi berean argi azpimarratzen du hondakinen sorrera-murrizketaren ingurumen eragina.

Ondasun gutxiago sortuta, bilketa kostu laburragoak eta trataera kostu apalagoak izango dira, baina, baita ere, eragin nabarmena lortuko da ingurumen eraginari dagokionez. Izan ere, tona gutxiago tratatu behar baldin bada, energia gutxiago erabili beharko da, eraso gutxiago egingo zaio ingurumenari trataera-plantak sortutako isurketa, lixibiatu edo beste efluenteen bitartez, eta, beraz, ingurumen eragin apalagoa izango da.

Estrategia orok kontuan izan behar ditu prebentzio-politika aktiboak, hondakinen sorrera murrizteko adinakoak. ADGEan jasotzen dira aintzat hartu beharreko sektore nagusiak: hondakin organikoen prebentzioa autokonpostatzearen edota konpostatze komunitarioaren bidez, elikagaien hondakin komertzialen edo etxeko prebentzioa, berrerabilera eta konponketa.

Politika eta ekintza horiek, eta, halaber, hiri hondakinen sorreran gaur egun dagoen beheranzko joerak, justifikatzen dute hondakin gutxiago sortzearen aldeko jokabidea izatea estrategia honen oinarritzko ardatza.

#### 12.1.2. GAIKAKO BILKETA HANDITU ETA BERRESKURATZE MATERIALA MAXIMIZATZEA

Gaikako bilketan, gaurko % 32tik 2016ko % 60ra eta 2020ko % 75era iristeak esan nahi du etengabeko hazkuntza egin behar dela berreskuratze materialean eta etengabeko murrizketa, berriz, gainerako zatikia tratatzeko beharretan.

Oinarri zientifikoaren aldetik begiratuta, argi dago ingurumen eragin apalagoa sortzen dela, konbinatzen direnean, alde batetik, berreskuratzen materiala handitzea; eta, bestetik, hondakin sorrera murriztea edo egonkortzea; horretan oinarritzen baita, hain zuzen ere, hondakinei buruzko esparru zuzentarauak ezartzen duen 5 mailako berezkuntza. Horregatik, estrategia honek Europako Batzordeak eta Parlamentuak baliabideen erabilera eraginkorra zehazteko bide-orrian adierazitako norabidea aintzat harturik, gainerako zatikia zerotik ahal den hurbilena lortu nahi du 2020rako.

#### 12.1.3. BILDUTAKO HIRI HONDAKINEN % 100 TRATATZEA

Gaur egungo ereduaren ingurumen arazorik handienetako bat da zabortegira bidaltzen direla hondakin mota asko, multzoan, eta horrek ingurumen eragin handia duela isurketa eta efluenteen bitartez.

Estrategia honek irtenbide bat ematen dio hondakinak multzoan hartuta egiten den trataeraren arazoari. Konponbidearen alderdi bat da jatorrian gehiago bereiztea eta gaur egungo gainerako zatikiaren birziklatzea handitzea –hau da, hondakin horiek ez bakarrik tratatuko dira, baizik birziklatu egingo dira–; eta irtenbidearen beste alderdia da azpiegiturak eraikitzea gainerako zatikia tratatzeko, material gehiago berreskuratuz eta gainerakoa biologikoki egonkortuz, paketatu ondoren, andeatutako guneen berreskuratze lanetan erabili ahal izateko, Europako araudia guztiz beteaz eta gaur egungo ingurumen eragina errotik murriztuaz.

Bestalde, tratatuko da jasotako gainerako zatikia ere. Gaur egun, zatiki hori aurrez inolako trataera egin gabe isurtzen da zabortegira; ingurumen-eragin handia sortzeaz gainera, horrek dakar gero kudeaketa luzea egin behar izatea, 30 urtekoa, zabortegia itxi ondoren ere, eta, jakina, kostu ekonomiko handi bat zabortegiaren bitzta erabilgarria amaitu arren.

Aldez aurreko trataerarik gabeko isurketak saihesteko, gainerako zatikia tratatzeko azpiegiturak eraikiko dira: horrela, material gehiago berreskuratuko dira eta materiala biologikoki egonkortu egingo da, eta, hartara, material hori enpaketatu eta espazio degradatuak berreskuratuzko erabili ahal izango da, europar araudiarekin zeharo bat etorri eta egungo ingurumen-eragina arrunt murriztuz.


Azpiegitura hauek instalazio malgu gisa planteatzen dira; izan ere, gainerako zatikiaren sarrerari buruzko aurreikuspena arian-arian murriztuko da 2020ra bitartean, prebentzio-politika aktiboak bizkortuko direlako eta gaikako bilketa ugartuko delako - % 60 2016an eta % 75 2020an Gipuzkoako udalerrri eta mankomunitate guztietan-. Instalazio mota horiek bakarrik ahalbidetzen dute eredu malgua, planteatzen den estrategiara egokitzeko modukoa eta estrategiaren garapenari mugak jarriko ez diena.

#### 12.1.4. ZABORTEGIAK IXTEA

Estrategia honek ADaren bideari jarraitzen dio, gaur egungo zabortegiak ixteko asmo garbiarekin. Sasieta, Lapateko eta Urtetako zabortegiak ixtearen ondorioa izango da CO<sub>2</sub>-ko eta gas metanoko isurketak zorrozki murriztea, eta lixibiatuek eta usain txarrek sortzen dituzten arazoak amaiaraziko ditu 2016an.

24. irud.:

Zabortegietara bidalitako tonak, bilakaera  
Iturria: Geuk egina



#### 12.1.5. EGONKORTUTAKO MATERIALA ERABILTZEA ANDEATUTAKO GUNEA BERRESKURATZEKO

Material egonkortua erabiltzea, paketatuta ondoren, andeatutako gunek berreskuratuzko xedez, hiru arrazoitan oinarritzen da. Lehenik, ingurumen eraginaren ikuspegitik begiraturata, era horretako paketeak erabilia eragin askoz ere apalagoa lortzen da, zabortegien edo erraustegien aldean, bi hautabide horiek isurketa eta gai toxiko gehiago sortzen baitute.

Bigarrenik, egonkortutako materialez osatzen diren pakete horien bitartez, Gipuzkoan barrena andeaturik diren guneak berreskuratu daitezke, beste baliabiderik erabili behar izan gabe, baliabide horiek eskuratzeko erauzte, prestatze eta garraio lanak kostu ekonomikoa izateaz gain, ingurumen eragin nabarmena baitu.

Azkenik, hondakin sekundarioei aldi baterako irtenbide hori emanda, sistema malguago bat izango dugu, ez baita amortizazio epe luzea behar duen azpiegitura handirik sortu behar, etengabe hondakinak jaso behar dituen. Herbehereak edo Alemania adibide garbiak dira, trataera gaitasun zurruna duten azpiegiturak sortzeak dakarren arriskuaz. Herrialde horien errausketa gaitasuna sobera denez, birziklatze merkatua baldintzatzeaz gain, hondakinak inportatzera beharturik daude, bestela erraustegiak itxi egin beharko bailituzkete. Gaikako bilketan etengabe aurrera egin nahi bada eta prebentzio politikari arrakasta eman nahi bazaio, aldi baterako irtenbide malgu bat eman behar zaie hondakin sekundarioei, gaikako bilketan ahal den eta lasterren aurrera egiten den bitartean.

#### 12.1.6. MOKaren TRATAERA DESZENTRALIZATUA

MOKaren trataera modu deszentralizatuan kudeatzea oinarri hauetan arrazoitzen da:

- Hurbiltasuna: hondakina sortzen den lekutik ahalik eta hurbilen kudeatu eta tratatzen da.
- Soiltasun teknologikoa eta inbertsio apala
- Prozesuari lotutako usain txarreko arazoaren prebentzioa, urtean 10.000 tonako kapazitatea gainditzen ez duten konpostatze-plantak direnez gero.
- Lanpostuak bertan sortzea: 50-60 lanpostu zuzen sortuko dira era deszentralizatuan, San Markotik kanpo.
- MOKaren sarrera eta irteeren kalitatearen gaineko kontrol handiagoa egongo da.
- Konpostaren irteera merkatutik hurbilago egongo denez, isurketa eta zirkulazio gutxiago sortuko dira.
- Malgutasuna: konpostatze planten sarea urtaroen arabera aldakuntzetara egokitu daiteke, eta zer zaborren bidean sortuko diren eskakizun berrietara.

Kudeaketa deszentralizatuaren helburua da tamaina handiko eta kudeaketa konplexuko instalazioei loturik izaten diren eragin negatibo guztiak saihestea. Konpostatzea prozesu naturala eta soila da. Prozesu honi loturiko arazoak bi eratakoak izan daitezke: kapazitate handiko konpostatze-plantak neurritzea edo MOKak material desegoki ugariz etortzea. Bi faktore horien prebentzioa, hain zuzen ere, eredu deszentralizatuaren bitartez konpondu daiteke, amaierako produktuaren kalitatea ere hobetuz.

Orobat, deszentralizazioaren bitartez balioa eman nahi zaie hondakinei. Konpostak, izan ere, nekazaritza guneak eta lorategi aldeak ongarrizko balio du eta zoruaren kalitatea hobetzen laguntzen du. Hondakinen trataera ikusgarriago eginez eta amaierako produktua tokian tokiko jarduera publikoetan edo pribatuetan erabiliz, herritarrak kontzientzia har dezan eta hondakinak baliabide gisa ikus ditzan laguntzen du.


Soiltasun teknologikoaz eta trataera ahalik eta lokalena eginez, tokian tokiko ekonomia suspertzen dira, bertako jendearen kontzientzia maila sustatzen da, eta iraunkortasunaren aldeko inbertsioa egiten da, Gipuzkoako lurak eta habitatak etorkizun bat izan dezaten.

### 12.1.7. HONDAKINEN GARRAIOARI LOTURIKO EMISIOEN, TRAFIKOEN ETA KOSTUEN MURRIZTAPENA

Azpiegituren diseinuak zuzeneko eragina du hondakin-zatikien tona bakoitzeko urratu behar den kilometro kopuruan. Jakina, hondakinak tratatuak izango diren tokira eramateko kilometro gehiago egin behar badira, gastua handiagoa izango da erregaitan, zirkulazio handiagoa izango da errepideetan, emisio handiagoak sortuko dira eta, horrenbestez, handiagoa izango da Gipuzkoako lurraldeak ingurumenean eta ekonomian jasaten duen eragina. Horregatik, garrantzitsua da optimizatzea eraiki behar diren azpiegituren kokalekua, garraiotan kilometro gutxiago egin behar izateko; eta garrantzitsua da, orobat, diseinatzea hondakin-en autogestioa sustatzen duten sistemak –adibidez, autokonpostatzea- edo hondakin-en murriztapena dakarten sistemak, gero garraiatu beharreko hondakin-en kopurua urritzeko.

Segidan, konparatzen dira zenbat kilometro egin behar diren, hondakin tona bakoitzeko, eszenatoki desberdinen arabera:

25. irud. Tona bakoitzeko kilometroen konparaketa, AD eta ADGE artean, egungo egoeran  
Iturria: Geuk egina



## 12.2. JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA

### 12.2.1. INBERTSIOEN OPTIMIZAZIOA

Dokumentu honen 10. puntuan zehazten dira estrategia hau garatzen beharrezkoak diren inbertsioak. 182,6 milioi euroko inbertsioak dira, eta GHKren erantzukizun diren inbertsioak estaltzen dituzte: konpostatze-plantak, trataera biologikoko plantak, eta dauden zabortegeien handitzeak eta egokitzeak eta espazio narriatuen berreskuratzea.

Inbertsioen kostua da strategiaren indarguneetako bat; izan ere, planteatzen duen plana arrazoizkoa eta malgua da, eta birziklatzearen gizartera eta zero zaborrera jauzi egiteko plana da, baina AD dokumentuan hasiera batean jasotako inbertsio kostuak baino askoz txikiagoak dituela.

